



# ARGIA



**JADE DANIELS · BLACK LIVES MATTER**

## **“BILUZIK DAGOEN ENPERADOREA DA TRUMP”**

---

**DERIOKO SEMINARIOAREN  
OKUPAZIOAK  
50 URTE**

---

**TEKNOLOGIA BURUJABETZA  
AZTERGAI EUSKARABILDUA  
JARDUNALDIETAN**

---

**XABIER GANTZARAIN IDAZLE  
ETA ARTE KRITIKARIAREKIN  
ELKARRIZKETA**





Azaroak  
6-18  
EUSKAL  
EMAKUME  
ERRUGBILARIAK  
ERAKUSKETA  
Baionako  
Euskal Museoa



EUSKAL HERRIKO  
EMAKUME  
ERRUGBILARIEN  
2.TOPAKETA

BAIONA · AZAROAK 17  
Pierre Cacareigt Errugbi zelaia



**PANORAMA**

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Gaizki erranka
- 7 Ez hanka ez buru
- 8 Ekonomiaren talaian
- 10 Barka iezazozu kamoiolari zoro horri: autopistetako galerianoa da

**IRITZIAK**

- 17 Mikel Zurbano
- 18 Ainhoa Azurmendi
- 19 Endika Alabort Amundarain Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Karmelo Landa Mendibe

 AZALEKO ARGAZKIA:  
**IRANTZU PASTOR**


- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: PERE ORTEGA
- 54 BERANDUEGI

*'Gogor' diskoa grabatu zuten frankismoaren aurkako Derioko seminarioko itxialdian, duela 50 urte. Zabaldu gabe geratu ziren disko hauek ARGIAK banatuko ditu komunitateko kideen artean.*

**SAKONEAN**

- 12 | Mertxe Tranche: "Alardeak erakutsi du emakumeok ezin garela sistema honekin fidatu" / Danele Sarriguarte Mochales
- 22 | Derioko seminarioko itxialdia: Eliza aldatu erregimena suntsitzeko / Urko Apaolaza Avila
- 28 | Jade Daniels: "Beltzon askatasunak pertsona oro askatuko du" / Nerea Eizagirre Telleria
- 32 | Waran Kangeyan: "Tamilek gogotik eusten diote hizkuntza transmisioari / Miel A. Elustondo
- 33 | Nola atera armairutik 500.000 euskaldun? / Imanol Epelde Pagola
- 34 | Euskarabildua jardunaldiak: Demokrazia eta teknologia burujabetza / Xalba Ramirez
- 44 | Xabier Gantzarain: "Gaur egun berdina balio du katu baten bideoak eta Munchen artelan batek" / Gorka Erostarbe


ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE


**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**


**Jabetza:** Komunikazio Biziagoa, S.A.L.  
 Ametzagaña Taldeko partaidea.  
**Lehendakaria:** Bego Zuza.  
**Zuzendaria:** Estixu Eizagirre.  
**Erredakzioa:** Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.  
**Diseinua:** Txentxo Muñoz.  
**Argazkilaria:** Dani Blanco.  
**Produktzioa eta inprimaketa:** Antza S.A.L.  
**Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.  
**Salmenta:** Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.  
**Idazkaritza:** Aloña Soraluze, Bego Zuza.

**DOAN ETA LIBRE**

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

**Web garapena:** Asier Iturralde.  
**Informatika:** iametza interaktiboa, S.L.  
**Lege gordailua:** SS 837-2012.  
**ISSN:** 0213-909X.  
**Batzorde parekidea:** 72562 E.  
**HELBIDEAK:**  
**Gipuzkoa:** Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.  
**Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:** Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.  
**Nafarroa:** Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.  
**POSTA ELEKTRONIKOAK:**  
**Komertziala:** komertzial@argia.eus  
**Harpidetzak:** harpide@argia.eus  
**Erredakzioa:** kazeta@argia.eus



PANORAMA

## Utzi Altsasu bakean

Eskuin muturreko España Ciudadana plataformaren deialdiari erantzunez, Espainiako Estatu txoko askotatik etorritako ehunka lagun elkartu ziren Altsasuko plazan –Foruzaingoa eta Guardia Zibilak gotorleku bilakaturikoa–. Ciudadanos, Vox eta PP alderdiek aukera baliatu dute hauteskunde-kanpaina etengabea elikatzeko. Baina erantzuna masiboa izan da. Milaka lagunek adierazi dute Altsasun ez direla ongietorriak minetik etekin politikoa atera nahi dutenak edo frankismoarekin lotura dutenak. Izan ere, espainiar nazional-katolizismo ultraeskuindarrak adierazteko askatasuna du, bai. Baina protesta, sirena eta kanpai hots artean bada, askoz hobea.

Argazkia: Idoia Zabaleta (Foku) · Testua: Axier Lopez



Oihartzuna izan du Ainhoa Intxaurrendietaren txio kateak. Txioetako batzuk:

**t** “Gaur kontsortzioko batzarrak, EAJ eta PSEren aldeko bozkekin, Iñaki Errazkin eta nire aldeko sententzia errekurritzea erabaki du. Ezusteko bakarra ni batzarrean agertzea izan da. Asensio lehendakariak ez zidan hitz egiten utzi nahi, baina azkenean azaltzeko aukera eman dit minutu batez”

**t** “Nire mezua EAJko kideei zuzendua izan da. Alderdi humanoa ikusarazi nahi izan diet. Errekurtsoarekin, gu biok eta gure familiak etorkizunik gabe utzi nahi ote zituzten galdetu diet”

**t** “Ez dira gai izan aurpegiara begiratzeko. Oso tristea iruditu zait alderdien interesa defendatzea, pertsonen eta gizartearen interesak defendatu ordez (...) Guzti honetatik alde positibo ere ateratu dut. Herritarren babesa”



HALA BEDI

## “Sakabanaketa nirekin erabiltzea estatuaren mendekua izan da”

Argia

Twitterren @erreharria izenez ezagunagoa den Alfredo Remirez azaroaren 3an irten da espetxetik, Espainiako Auzitegi Nazionalak terrorismoa goratzea egotzita urtebeteko zigorra bete ostean. Amurrion egun osorako jai eguna egin zioten ongiatorria emateko.

Herriko festetan euskal presoek jasaten duten dispertsioa panpin baten bidez salatzeagatik leporatu zioten “terrorismoa goratzea”. Guardia Zibilak garatu zuen Araña Operazioan Euskal Herrian espetxeratu zuten lehenengo pertsona izan zen. Hasiera batean Basauriko espetxera eraman bazuten ere, Zaragozaraino dispertsatu zuten otsailean, etxetik 300 kilometrora. Hilabeteak geroago, Zaballako presondegira lekualdatu zuten.

“Espetxea munstroa da”

Aiaraldea komunikabideari kontatu dionez, “sakabanaketa nire aurka erabiltzea estatuaren mendekua izan da, hainbat aldiz salatu eta gero, probatu dut. Berez, urtebetean hiru kartzeletan egon naiz. Espetxea munstroa da eta kanpotik beldurra ematen du, baina barrutik ere beldurgarriagoa da. Kartzelak ez du balio gizarteratzeko. Jende pilo sartzan dute leku berean, akusazio oso ezberdinekin. Gero, gizarteratzeko, behar duzu ikasketak izan, edo lanbideren bat ikasi, zer edo zer. Hori ez da gertatzen”. Adierazpen askatasunari buruz dio gauzak ez direla aldatu: “Adierazpen askatasuna arazo larria da eurentzat. Pentsamendu bakarraren aldekoek ez dute nahi bestelako pentsamendurik, eta horretarako gai dira edozer egiteko”.

## “Dogmatismo eta itxurazko asaldatze moraletik asko dute Skolaeri egindako kritikek”

PILAR KALTZADA, IDAZLEA ETA KAZETARIA

Nafarroako Gobernuak abiatutako Skolae Berdin Bidean hezkidetza programa gogor kritikatu dute PP eta UPNk. Kaltzadarentzat, “Skolae da geure hezkuntza-sistemek izan duten gabeziari heldu dion saiirik serioenetakoa. Asmatuko du edo ez edukietan (...) eta zilegi da horien inguruan iritziak izatea. Zalaparta eragin duten kritikek, ordea, zerikusi gutxi dute, batere ez esatearren, programarekin, eta asko, gehiegi, dogmatismo eta itxurazko asaldatze moraletik (lehia elektoralek ez esatearren)”. **BERRIA (2019-11-01)**



GAIZKI ERRANKA

# Manipulazioa



Santi Leoné  
@ororostorm

Espainol onek badakite –espainol gaiztoak ere badira, kopurua zehaztea zaila den arren– Kataluniako TV3k manipulatu duela. Naski ez dute sekulan ikusi; ikusi nahi izatera ez zuketena deus ulertuko zeren, katalan guziek gaztelaniaz xarmanki badakite ere, katalanez emititzen tematzen baita eta hori, nahasgarria izateaz gainera –hainbertze bokal, hainbertze izenordain ahul–, aski susmagarria baita. Espainol onek ez dute TV3 inoiz ikusi, eta beharrik ere ez, manipulatu ez duten hedabide onek azaldu baitiete Espainiako erki-dego hartako telebista publikoan manipulazioa dela nagusi.

Iduri luke gauza bera dela herri batera arreta mediatikoa erdiesteko asmoz probokatzerara joatea eta zure herrian horrelako eraso bat sufritu behar izatea

Orobat, manipulatu ez duten hedabide horiei esker dakite espainol on guziek Altsasun jendeak gorroto duela Guardia Zibila, eta gorroto horrek bulkatu zuela bi guardia zibilek jasan zuten eraso basatia. Espainol onek beharbada ikusi zuten bortizki zafratua izan ondotik guardia zibil horietarik baten atorra zurian ez zela odol tantarik, artean hain zuria zela ezen maindire saindua bota eta Kristoren gorpua biltzeko balio bailezake, honen duintasuna inolaz ere menestu gabe; apika irudiak ikusiko zituzten, eta atzendu ere bai, manipulatu ez duten hedabideek argi azaldu baitute gauza aditu gabea dela polizia baten ahotik gezurrik ateratzea.

ETB2ko Teleberrin ere “batzuk eta bertzeak” izan zituzten mintzagai Altsasun gertatutakoa komentatzean, eta ibiliko ziren batzuk eta bertze batzuk herrian barna, baina horrela adierazita iduri luke gauza bera dela herri batera arreta mediatikoa erdiesteko asmoz probokatzerara joatea eta zure herrian horrelako eraso bat sufritu behar izatea.

Izanen dira, jakina, manipulatu ez duen ETBren mezu hori sinesten duten euskal herritar onak, baina batzuetan euskal herritar gaiztook nahiago genuke ETBk pixka bat manipulatu balu. TV3k bezainbertze, sikiera. ■



## ANALISIA



## Tortura, ezkutuko krimena?



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: ETB

ETB2k *Tortura, el crimen mejor escondido* dokumentala eman zuen igande gauetz 360 *grados* saioan, eta askori oraindik hotzikara ez zaio gorputzetik joan han entzundakoengatik. Emankizunak momentu batzuetan hartzen duen estilo sentsazionalistaz edo dituen hutsune larriez –batez ere Ertzaintzak egindako torturez ari denean– hitz egin dezakegu. Baina torturaren drama islatzea lortu duela zalantzarik ez da.

“Labezomorroa zapaltzean entzuten den ‘krak’ bera sentitu nuen nire barnean”, dio Enkarni Blancok, Guardia Zibilak 1992an torturatua. Polizia-etxean nola bortxatu zuten pertsona batek detale osoz telebista publikoan kontatzea ere ez da ohikoa, Suitzatik Nekane Txapartegik egin bezala (irudian, ezkerrean).

Baina ezin gaitzeko orain harritu. Torturazailen inpunitatearen atzean ez dago ezjakintasunik. Txapartegiren testigantza aspaldi ezagutzen dugu, beste zientotika atxilotuena moduan. Nork ez du ikusi Unai Romanoren aurpegi ubeldua? Atzerago, 1976an, astekari honek munduari lehen aldiz torturen aztarnak bistarazi zizkion Anparo Arangoaren argazkiekin.

Nazioartean azken 50 urtetan jakin dute hemengo torturen berri. 1969an,

Josu Barandika abade exiliatuak Paulo VI. Aita Santuari Genevan eskura eman zion “Euskal Herriko errepresioaren txostena”, poliziaren torturen marrazkiekin eta guzti. “*Je verrai*” esan zion honek birritan, ezustekoa pasa eta gero. Hortik denbora batera, Nigeria eta Vietnamen pare jarri zuen Espainia Aita Santuak, bere kardinalen aurrean.

Tamalez, Martin Villaren garaiko argudioek egun jarraitzen dute gertaturikoa minimizatzen eta zurrizten: bateko ustezko salaketa faltsuak, besteko *erroreak*... ETB2ko dokumentalean, Carmen Solano UCDko diputatu ohiak dio ETAREN atentatuen aurrean atxilotu bati egin ziezaioketen gutxienekoa zela torturatzea, guardia zibilen ustez.

Ezkutuko krimen izateagatik baino, euskal gatazkaren testuinguruan jaso duen babes politikoagatik irau du torturak modu sistematikoan. Estatuak urteotan praktika hori erabili du jendartearen terrorea zabaltzeko, helburu estrategikoekin. Berdin komando bateko liberatuari, nola egunkari bateko kideei edo gazte erakunde batean zegoenari. Oinarri politiko hori kontuan eduki gabe nekez lortuko dugu malko hutsetatik harago, torturatuentzako egiazko aitortza eta erreparaziorik.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Eskola jantokietako iruzurren erantzuleak



Juan Mari Arregi

Eusko Legebiltzarreko batzorde batek 2003 eta 2015 artean eskola jantokietan izandako iruzurra ikertzen dihardu; iruzur horren ondorioz dozenaka milioi euro galdu dituzte diru-kutxa publikoek. Sektoreko enpresek adostu zuten merkatua banatu eta zerbitzuaren prezioa nahita puztea. Oso larria, eskandalagarria eta susmagarria da administrazioak urte horietan konpainia talde bat kontratatzea, euren artean prezioak puzten aritzea, eta alarmak ez jotzea. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak dioen moduan, harritzekoa da “denbora tarte luze horretan ez egotea erreakzio edo ikerketarik, ezta inongo badaezpaddocko kontsulta, ez salaketarik ere” Eusko Jaurlaritzaren partetik, nahiz eta “esleipenak sistematikoki esku beretan geratzen ziren”.

Joan den astean batzorde horren aurrean agertu dira Cristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua (EAJ) eta bere aurreko hirurak: Isabel Celaá (PSE), Tontxu Campos (EA) eta Angeles Iztueta (EA). Ustekabean eta errezelo gehiago sortzeko, euren deklarazioa adostu balute moduan hitz egin dute, esanez ez zutela susmo edo irregulartasunik atzeman euren agintaldietan, eta legearen barruan aritu zirela. Noski, ez dute berengain hartu diru publikoari egindako iruzurraren erantzukizun politikorik.

Halako narraskeria ezin da horrela geratu ordea. Eusko Jaurlaritzako kargu ohiek diote iruzur praktika hori ez zutela sustatu edo babestu, baina haiek eta exekutiboa bera gutxienez badira erantzule politikoak, euren pasibotasun, moteltasun eta kontrol faltagatik. Ezin da onartu erantzulerik ez egotea eta Hezkuntza sailburuak lasai asko etxera joatea. Batzordeak ez luke iruzur milioidun horren ikerketa oinarrikerik gabe itxi behar: enpresa kartel horrekiko konplizitatearen itzala luzezia litzateke.





@ANTIFAXISMOA

## MTV ereduari kontrapuntua jarri diote

**BILBO.** Instituzioek lorpen gisa ospatu dute MTV ekarri izana prekaritate eta langabezia tasarik handienetakoak dituen eskualdera. Aste berean, hainbat ekitaldi antolatu ditu Piztu Bilbo Itzali MTV mugimenduak (tartean argazkiko elkarretaratzea). Modu horretan, eta ainbat herri mugimenduk bul-tzatuta, "globalizazio kapitalistaren eta sexismoaren ikur" den MTVren kultur ereduari kontrapuntua jarri nahi izan diote.

# Erreferenduma Kaledonia Berriaren independentziaz

Iñigo Igartua

@igartua19

Kaledonia Berria (Ozeania) Frantziako Estatutik banandu ala ez erabakitze-ko Noumea hiriburuan burutu den erreferendumean, ez independizatzeko aukerak botoen erdia baino gehixeagorekin eta uste baino alde txikiagoaz irabazi du.

### Datutan

Independentzia ezetz bozkatu dutenak botoen %56,4arekin gailendu arren, baietzak aurreikuspen guztiak gainditu ditu, %43,6aren babes-lortuz. %80,6ko parte-hartzea izan du galdeketak.

### Garaipena "oso gertu"

Erreferendumeko emaitzak baloratu buruzagi independentistek adierazi dute garaipenetik "oso gertu" daudela eta datorren urteetan adosturik dauden galdeketarako "indarra" ematen diela.

### "Garaipen sendoa"

Alderdi politiko frantsesek oster, "garaipen sendo" gisa kalifikatu dute bozketaren emaitza eta datorren urteetarako adosturik dauden beste bi erreferendumak ez egiteko nahia adierazi dute.

ERLIJIOA  
HEZKUNTZAN



%18

Ikasleen %18ak baino ez du Erljio ikasgaia aukeratzeko EAEko ikastetxe publikoetan.

10 ikastetxe publikotik 3tan dagoeneko ez da Erljio ikasgairik ematen, ez dagoelako eskaririk. Itunpeko ikastoletan are nabariagoa da interes falta: 10 zentrotik 9tan ez da Erljioa ematen.



### GAZTELANIAZ

Gipuzkoako Aldundiak Elgetako Udalerri herriko kiroldegiko aldagelak berritzatzeko eman beharreko 13.000 euroko diru-laguntzaren hitzarmena blokeaturik dago, Elgetako Udalak euskaraz sinatu duelako, eta euskaraz eta gaztelaniaz sinatzeko exijitzen diolako Diputazioak.



### HOMEOPATIA

2.008 produktu homeopatikok eskatu dute merkaturatzeko baimena Espainiako Estatuan, eta lizentzia lortu beharko dute orain. Baimenik eskatu ez duten gainerako guztiak, 4.000 produktu inguru, erretiratu egingo ditu Osasun Ministerioak.



### KUTXA FUNDAZIOA

EH Bildu Kutxaren patronatuan sartuko da, banku fundazioa sortu zenean uko egin zion arren, Gipuzkoako aurrezki-kutxen pribatizazioa argudiatuz. Elkarrekin Podemos ere sartuko da.

# Barka iezaiozu kamioilari zoro horri: autopistetako galerianoa da



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Konpainia handiek gutxitan egiten dituzte beren banaketa lanak beren jabegoko kamioiekin, ia beti kontratatzen dizkiete garraioan berezitutako multinazionaleri, hauek zerbitzua lotzen Europar Batasuneko eki edo hego aldeko beren filialen bidez, sarri hauek lekuotako txikiagoei azpikontratatu. Azkenean, huskeria pagatzen zaien txoferrak erabiliko dituzte –dena lege barruan, prefosta– mugak zeharkatuz gure errepideetan barrena esklabo lana egiteko.

Kamioilariok basati hutsak dira, edo hala irudiko zaizkizu errepide eta autopistetan zoro moduan aurreratzen edo atzetik bultzaka datozkizunetan. Sarri atzeko atoi luzeetan autoz edo furgonetaz gainezka, aurreratuko zaituzte zaman daramatzen kotxeak hurrengo bihurtunean zure gainera jaurtitzeko mehatxuz. Gipuzkoa zeharkatzen duen N-I errepidean abiadura mugak errespetatuz gidatu nahi baldin baduzu, hobe duzu Arantzazuko Andra Mariri promes egitea zure osasunaren truke, hemen kamioi gutxi topatuko duzu orduko 100 kilometro azpitik dabilenik, Donostiatik hasita Etzegarateraino 80tik pasatzea libre ez badute ere. Zer ematen diete, ordea, astazakil hauei?

Erantzuna *Investigative Europe* elkarreko kazetariak bilatu dute, aurkitutakoa erreportaje zabalean bilduz: “Gurpil gaineko tailer klandestinoak”. Europako hainbat hizkuntzatan –ez gaztelaniaz– publikatu den kronika Portugaleko *Diario de Noticias*-ek titulatu du “*Eskubiderik gabeko kamioilariak Europako errepideetan barrena*” eta Frantziako *Basta!* aldizkariak “*Txoferraren bizimodu jasan ezina: Europako auto industriaren galerianoak*”. Aspaldiko zigor hura desagertu ez baina arras orokortu balitz bezala, hil arte galeretan derrigortutako lanera kondentatutako galerianoak direla kamioizaleak.

“Renault, Volkswagen, Jaguar, Fiat... Europako autogintzako ekoizle erraldoien fabriketatik ateratzen diren ka-

rozzeria distiratsu horiek barru askoz ilunagoa estaltzen dute: berebil horiek eta aurretik beren osagaiak bategitik bestera eramateko dozenaka milaka kamioilarik nozitu behar dituzten lan baldintza tamalgarriak. Europako hamalau herrialdetan sortutako ehunka txoferrekin elkarrizketatu dira, zenbait hautetsirekin, sindikatuekin, fabrikatzaileekin ere bai. “Denetan –diote *Investigative Europe*-koek– ondorioak lur jota uzteko modukoak dira: autoak edo horien piezak garraiatzen dituzten txoferren zampaketak erakusten du Europar Batasunaren aurpegirik txarrene-tako bat”. Europarrok ohartu ez arren, Txina edo Bangladesheko langileek nozitzen dituzten bizi baldintzen bila ez dago hain urrun joan beharrik.

Autopistetako nomada hauek gehien bat etorkinak dira, lanean ari diren herrialdeetako gutxieneko soldata baino askoz gutxiago kobratzen dutenak. Sarritan ez dute osasun aseguruirik, opor eskubiderik ere ez, deskantsu egun oso gutxi eta lanagatik nekea eta estresa daramate soinean. Kamioi barruan lau metro karratuko espazio itxietan igarotzen dituzte asteak, bertan sukaldatu, jan eta lo eginez, komunekoak eta garbiketara ere kamioian bertan edo aparkalekuetako zerbitzuetan eginez.

Dena hasi zen mugitzeko askatasunaren izenean garraioa liberalizatu zutenean. Kosteak murriztu eta etekinak handitzeko, garraio enpresak hasi ziren Eki Europako txoferrak kontratatzen.



Baina eskulan merkearen bilaketa ez zen hor amaitu, gaur egun enpresa askorentzat ari diren gidariak Europar Batasunatik kanpokoak dira, Ukraina, Moldavia, Bielorrusia, Kazakhstan edo Filipinetakoak.

Miseriaren hedatzearen erantzule bila hasita, berehala ohar daiteke txoferrak kontratatzen dituzten konpainien haritik tiraka, etekinak handitzeko kate berean daudela sartuak garraio eta logistikako korporazio handiak eta autoak ekoizten dituzten marka nagusiak: Renault, BMW, Jaguar-Land Rover eta Volkswagen. “Gurpil gaineko tailer klandestinoak: horra zer dagoen auto ustezko ‘etikoen’ atzean”.

## Orduka ez, kilometroka kobratuz

Renaultek Paris ondoko Flisen daukan faktoria itzelean –237 hektarea lur, 67 hektarea pabilioi– Leila Miñano kazetariak atarian aurkitu du Cosmin 26 urteko txofer errumaniarra. Hiru hilabete dira Bukarestetik irten zela eta geroztik behin bakarrik egin du lo benetako ohe batean, gainerako gau guztietan kamioiaren kabinan. Bere kideek bezala otorduak su portatil txikian berotzen ditu, dutxatzen da zerbitzuguneetan... dutxa txukunik aurkituz gero.

Hilabetean 1.200 kobratzen ditu, horietatik 400 gastueterako. Horiekin pasatu behar da hilabete osoa Frantzia, Alemanian edo Suedian! Eta hala ere dio moldatutako litzatekeela, ez balitz etxe-koak faltan botatzen dituela. “Bi urteko



alaba daukat. Etxeratu nintzen azken aldian, ez zen nire izenez ere gogorazten...". Bi aste gogor gehiago falta ditu etxera itzultzeko, "ea denbora ahalik eta azkarren pasatzen den".

Mendebaldeko langileen soldaten eta ekialdekoenen arteko leizea izugarria da. Txofer poloniar batek hilean 602 euro gordin jasotzen ditu, Frantziakoak 2.478, beti gordinetan. Poloniakoak laurdena. Hala bihurtu da Polonia nazioarteko garraioan Europako txapel-dun: 32.000 enpresa, 3,2 kamioi handi, hamar biztanleko kamioi bat.

Baina konpainia handiek hondoratu dituztenean mendebaldeko kamioi enpresa asko eta izorratu txoferren bizi baldintzak -milaka lan barik lagata-orain Eki Europakoek ere jasan behar dute konkurrentzia are merkeagoa, Europar Batasunaz kanpotik datorrenena.

2012tik 2017ra %286 ugaritu dira. Moldavia, Bielorrusia, Errusia, Ukraina, Filipinak, Kazakhstan eta baita Sri Lankako langileak dira orain errepide gaineko proletario zanpatuenak.

Errepideko galerianoetako askok ez dute osasun aseguru ere. Kazetariei lekukoez bezala protagonistek aitortu dietenez, gidatzen jarraitu beharra daukate nekatuta egon edo gaixo, ezin dira gelditu. Gehienak garraiatutako kilometro kobratzen du. Ilegala da langileari ordaintzeko modu hau. Horrek esplikatu du ez gelditzeko eta ahalik eta azkarren zirkulatzeko itsutasuna, Europa osoan hainbeste istripu hilgarri eragin dituen.

Gidari batzuek aitortu dute ugazabek behartu dituztela kamioien takografoak manipulatzera, legezkoak baino ordu gehiagotan ibili ahal izateko. Konpai-

*William K.-k 'Neon' aldizkarirako egindako argazkian, Tibor eta Vasile txofer errumaniarrak eta Nick ingelesa Julien Chavanes kazetariarekin -motxiladuna- autopistako zerbitzугune batean, 2012ko abuztuko arratsalde bateko galdaratan. Bi errumaniarrak kontratatu dituzte Frantziatik eta Alemaniatik Errumaniara deslokalizatutako konpainiek. Kamioizaleok ere aste luzeak daramatzate asfaltotik urrundu barik.*

niek geolokalizatzailearekin jarraitzen dituzte gidariak, azkarrago mugi araziz mantsoezi badoaz edo atsedean hartzera gelditu badira. Eta industriako *management* zaharretan bezala, sariak eta zigorrak banatzen dituzte: zigorra kamioaren pinturan arrasto bat egiten badizute, *bonusa* astean 11.000 kilometro egitera iristen baldin bazara.

Renaulteko atarian kazetariak aurkitu ditu Micka eta Lucas -71 urte- bulgariarrak. Bikote gisa kontratatu ditu ugazaba turkiarrak, bat bolantean ari denean bestea lotan eta alderantziz. 600na euro hilean. Harro diote Renaulten Parisko eta Turkiako Oyak-Borsako usinen arteko 3.000 kilometroak behar izanez gero egun bat edo egun eta erditan osatu ditzaketela. Eska iezu orduko 60 km-tara mantsotzeko Tolosa parean obratan dagoen errepide estutuan... ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

## 50 urtez elkarrekin

# «Alardeak erakutsi du emakumeok ezin garela sistema honekin fidatu»

**Mertxe Tranche**

*Letrak eta kaleak gureak dira*

Irungo Brontë liburu-dendan bildu gara Mertxe Trancherekin. Non bestela? Liburuak ditu Tranche pasio eta bizibide; denetik egin omen du horiekin: irakurri, saldu, ordenatu, idatzi, tailerrak gidatu... Beraz, elkarrizketa honetan, literaturaz aritu gara ezinbestean. Eta ezinbestean aritu gara, orobat, errealitateaz. Eta historiaz. Izan ere, irundarraren bizitzan eragin handia izan du dagoeneko bi hamarkada bete dituen gatazkak: alarde parekidearen aldeko borrokak.

**Testua: Danele Sarriugarte Mochales**

**Argazkiak: Dani Blanco**

## Gogoan duzun lehen irakurgai?

Ez da lehena, baina gogoan dut *Jane Eyre*, Charlotte Brontërena. Neska gaztetxo bat liburutegira datorren aldiro, hori ematen diot beti, nahiz eta beste zerbaiten bila etorri. Iruditzen zait mugarrari bat ezartzen duela.

## Zer mugarrari?

Nik 12 urterekin irakurri nuen, gutxi gorabehera, eta ordura arte gazteen-tzako liburuak baizik ez nituen irakurri. Liburu horrek, ordea, larritasuna eragin zidan. Deskubritu nuen bestelako gauzak aurki zitezkeela literaturan.

## Larritasuna?

*Jane Eyre*, zenbait zentzutan, liburu ahul samarra da teknikaren aldetik, baina

halako pasioa dario... Teilatuko baka-rrizketa irakurtzen dudan aldiro ilea lazten zait, eta iruditzen zait lantzen duela gai bat zeina oso garrantzitsua baita emakumeontzat: amorruren kudeaketa. Sistema honetan bizi garenez, amorrua sentitzen dugu ezinbestean, baina inoiz ez digute erakutsi amorrura-ekin zer egin. Esan digute esertzeko eta hortxe geldirik egoteko, baina amorrua barruan daramagu hala ere. *Jane Eyre* irakurtzean, ordea, ikusten dugu nola erabil dezakegun amorrua gure alde, eta uste dut hortxe datzala liburuaren indarra.

Beste liburu bat ekarri nahi nuke orain hizpidera: 1928an argitaratu zuen Virginia Woolfek *Gela bat norberarena*, duela

## Mertxe Tranche Iparragirre

Irún, 1965

Hainbat lan egindakoa da. Azkenaldian, Irungo CBA liburutegian dabil, eta emakumeek idatzitako literaturari buruzko tailerrak ematen ditu hainbat herritan. Lau liburu idatzi ditu: *Historia de las mujeres en Irún, 1931-1992*; *Un modelo diferente: vida municipal de Irún durante el reinado de Isabel II*; *Los buenos hijos: una visión sobre la guerra civil, sus antecedentes y consecuencias en Irún* eta, azkenik, Ana Galdosekin batera, *Los Olazabal: un ejemplo de surgimiento, persistencia y transformación de las élites locales en Irún (siglos XV-XVIII)*.





**90 urte. Emakumeek ordura arte idatzitako literatur lanak erreparatu zituen Woolf-ek saiakera horretan, eta etorkizuneko emakume idazleei eskatu zien eusteko beren askatasunari eta idazteko denetatik. Ehun urteko epea eman zien horretarako.**

Nire ustez, mende eskas horretan liburu itzel batzuk idatzi dituzte emakumeek. Orain, ordea, eta iritzi hau nire-nireada, eta agian zahartu naizen seinale, baina, zera, orain gustatuko litzaidake idazle emakumeek ez pentsatzea apokaliptikoak izan behar dutenik interesgarri izateko. Belaunaldi berria guztiz da apokaliptikoa eta distopikoa, arnasestuka uzten gaitu denok eta ez du ir-

tenbiderik proposatzen. Bikain ari dira, baina halako ostikada bat ematen dizute sabelean... Diagnostikoa ederki dago, baina zauriari ukendua jarri beharko diogu, ezta? Edo eguzkitan ipini, behintzat; ezin gara horrela bizi. Esango nuke emakume idazle horiek uste dutela, literatura “gogorra” egin ezean, ez dituztela seriotan hartuko. Nahi nuke haiek horrelakorik ez pentsatzea, baina, seguru asko, zuzen dabilta. Agian hauxe nahi dut benetan: mundua horrelakoa ez izatea.

**Liburuak irakurri eta gero, saldu. Auskalo izeneko liburu-denda ireki zenuten Josune Urrosolok eta biek. Nolatan hasi zineten?**

Alardearen kontuak gauza on ugari ekarri zuen, besteak beste, horren bitartez topatu ginen elkar ezagutzen ez genuen jende mordo. Era guztietako harremanak sortu ziren: maitasun-harremanak, laguntasunak... Batzuek, berriz, proiektu bera geneukan. Adibidez, Josunek eta biok liburu-denda sortu nahi genuen. Nik bizi osoa eman nezakeen liburu-dendarekin ametsetan, ezer egin gabe, baina Josune ausartagoa zen, eta ikusi zuen ez zela diru askorik behar liburu-dendak nahi genuen moduan muntatzeko.

### **Zenbat urte egin zenituzten?**

Bost. Ondo samar joan zitzaigun, egia esan. Ez genuen horregatik itxi. Alardearen hasierako urteak ziren, eta hara etortzen zitzaigun jendea arratsaldeko seiretan, sofan eseri, eta ez zuten gaurdira arte alde egiten. Larunbatetan, berriz, bigarren eskuko azoketara joaten ginen, liburu bila. Hortik kanpo, ez geneukan bizitzarik. Lan-kontu berriak atera zitzaizkigun, nekatuta geunden, eta horregatik itxi genuen.

### **Idatzi ere idatzi duzu libururik. Irungo historiari buruzkoak batez ere. Nolatan hasi zinen horretan?**

Legaleon antzerki-taldearekin nenbilen lanean, eta haiek Suitzara joan ziren beste antzerki konpainia bat sortzera: L'Alacran. Lanik gabe geratu nintzen. Bazen ikerketa sari bat, eta proiektu bat aurkeztu nuen: pospolo-egileen historia aztertu nuen. Irunen pospolo-lantegi bat egon zen ehun urtez, seiehun emakume egin zuten lan bertan, eta nik entzuna neukan oso potenteak izan zirela, baina ez zegoen ezer zehatzik haien inguruan. Saria eman zidaten. Ondoren, lantegiei buruzkoak ikertzen jarraitu nuen, zeren beti esan izan da Irunek ez zeukala industriarik, baina nik ikusi nuen ez zela hala: Irun industrializatu zen, baina bere erara. Behin tiraka hasita, maitemintzeko moduko espeditateak topatzen dituzu, hasten zara hariak lotzen, bihurtzen zara garai bati buruzko aditu, enkarguak egiten dizkizute...

### **Ezagutzen ez dena ezagutzeko bidea dugu ikerketa. Zer aurkitu zenuen zuk?**

Iruni buruz, eta oro har munduari buruz, ez baitut uste ezberdin funtzionatzen dutenik, nahiz eta batzuetan hala iruditu, hauxe ikasi dut: eliteak eraldatu egiten direla beti. Gattopardo pertso-

naiak nola dioen, dena aldatzen dela guztiak berdin irauin dezan, bada halaxe da, hain zuzen ere. Eliteak garaiz garai egokitzen dira, halako moda batzuei ere jarraitzen diete, baina beti dira berdinak. Adibidez, XVIII. mendean, eliteko jendeak erakutsi beharra zeukan; orain, ordea, eliteek diskretu izan behar dute. Olazabaltarrak, adibidez, Portugalgo bodegarik handienaren jabe dira, eta banku guztietan daude, baina gaur egun, inork ez luke asmatuko. [Irungo familia boteretsu bat da Olazabal familia: haiei buruzko liburu bat idatzi zuen Tranchek, Ana Galdosekin batera].

**Elkarrizketan behin baino gehiagotan agertu zaigun gaiari heldu nahi nioke orain. Atzera joko dugu, 1996ko ekainaren 30era. Egun hartan atera zineten lehenengo aldiz alardean. Nola gogortzen duzu une hura, hogeitetik gora joan diren honetan?**

Urte hartan antolaketa-lanetan ibili nintzen, ez nuen desfilatu, baina haien alboan gindoazen. Ekainaren 30a iristera orduko, egurra emana ziguten alde guztietatik, baina atera baino hamar segundo lehenagora arte bageneukan halako irudipen bat, agian ez gintuztela gaizki hartuko. Eta, orduan, San Joan plazara iritsi eta ikustea nola hartu gintuzten, izugarria izan zen. Errebelazio bat. Bat-batean hazi ginen, edo ilea urdindu zitzaigun, ez dakit, baina orduantxe konturatu ginen zer mundutan bizi ginen. Eta horren ostekoa ezin da adierazi, ezin da kontatu nola bizi izan ginen zenbait urtez. Baztertuta bizi ginen, mehatxuak jasotzen genituen etengabe, edozein momentutan, edozein egunetan. Ezin ginen tabernetara joan, astebururo sartzen ziguten silikona liburu-dendako atean, kotxea izorratu, etxeko ataria markatu...

**Eutsi zenioten hala ere. Nondik atera zenuen indarra?**

Orduan bezala sentitzen dut orain ere: han geundenekiko leialtasuna. Ez geneukan beste inor, beraz ezin genuen kale egin, elkarri eutsi behar genion. Zenbaitek ezin izan zion presioari eutsi, eta bagenekien zer zen hori, bakar-bakarrik geratzen zinen. Irunen taberna batera baino ezin gintezkeen joan pote bat hartzera, Kabigorrrira; ez ziguten lanik ematen... Ezin da azaldu, zeren ez zen inoiz eteten, etxetik atera bezain



laster hasten ziren begiradak eta irainak. Hortxe ikusi genuen alardea mikrokosmos bat dela, eta ederki islatzen duela nola ekiten duen botereak. Hamaika ebazpen atera dira gure alde, baina botereak erabaki du ez dituela beteko, eta hala egin du. Ontzat eman, bai; bete, ez.

**Aspaldiko alarderik gogorrena izan da aurten Hondarribian. Han zinen, Jaizkibeekin desfilatzen.**

Aurten Hondarribian gertatu denak badu alde onik: gu ez beste norbaitek pairatu du gelako harropuztaren kaskealdia. Gelako harropuzta xaxatzen ibili dira denak, txalo egin diote, baina aurten apaizari erakutsi dizkionean hortzak, eta beste batzuei, konturatu dira akaso ihes egin diela piztiak, jada ez dagoe la beraien mende. Eta orain, zer egin? Edonola ere, honek guztiak erakutsi du sistemak huts egin duela. Alardeak erakutsi du emakumeok ezin garela sistema demokratikoarekin fidatu, ez eta botere banaketarekin ere, ez behintzat gaur egun antolatuta dagoen moduan. Siste-

ma horrek ez gaitu emakumeok babestu, nahiz eta arrazoiak eduki.

**Zergatik lehertu da hemen? Zergatik gaiztotu da hainbeste?**

Ez dut uste bereziak garenik.

**Horregatik bada.**

Beste leku batzuetan beste zerbaitek lehertuko litzateke, beste nonbait legoke baba. Guk baba bat jo dugu. Hala ere, gizarte konplikatua gara, Irun uharte bat da gauza guztietan. Historia berezia daukagu, osaketa soziologiko berezia, eta uste dut liskar zahar eta latza daukagula, hainbat modutara agertu dena. Izan ere, egindako ikerketei esker ikasi dut, alardearen gatazka baino lehen, antzeko beste hiru liskar gertatu direla Irunen. 1864an, gauza berbera gertatu zen, udal bandako organo-jotzailea karlista zelako, eta udala, berriz, liberala.

**Eta orduko hartan zer egin zuten, organo-jotzailea bota?**

Ez, Irunen konponbide bera ezartzen da beti. Organo-jotzailea zenez banda-

ko zuzendaria, bada, banda bana sortu zuten [barreak]. Banda liberalak jotzen zuenean, karlistek alde egiten zuten plazatik, eta alderantziz.

### Eta beste bi liskarrak?

Musika-bandarekin piztu zen beste bat, eta hirugarrena futbolarekin loturikoa zen. Bi futbol-talde zeuden hemen: Racing eta Sporting. Orduko hartan baino ez zen gatazka onpondu, eta talde bakarra daukagu orain: Real Unión. Horra hor gakoa: erregeak esku hartu zuen, eta horregatik batu ziren bi taldeak. Institutuzioak esku hartu zuen, eta alardearen kasuan horrexek egin du huts.

### Beranduegi da instituzioek esku hartzeko?

Urkulluk orain gutxi aipatu du gaia, baina esku-hartze erradikalagoa behar dugu. Hala ere, aurreko guztiek baino gehiago egin du, zeren, gutxienez, ez du esan jaia bizitzeko bi modu daudela eta biak maila berean daudela. Hori ez baita egia. Jaia bizitzeko bi moduak ez dira berdin zilegiak, asko jota, berdin legezkoak izan daitezke. Baina ezin da berdin zilegia izan integratzen duen jaia

eta jendea kanpo uzten duena. Urkulluk adierazi du norantz jo behar den, baina instituzioak askoz argiago adierazi behar luke zein den bidea eta non kokatzen den instituzioa bera.

### Nola?


Bada aurrekaririk. Donostian, adibidez, diru-laguntzak moztu zituzten. Berdintasun lege bat daukagu, eta ikuskizun publiko baztertzaleak debekatzeko ditugu. Beraz oso erraza da. Baina hori ez da konponbidea. Nik ez dut nahi alarde tradizionala debekatzeko, ezta plastikoak debekatzeko ere; nik nahi dut plastikoen atzean daudenek plastikorik atera nahi ez izatea. Baina horretarako, pedagogia egin beharra dago, eta hasteko, autoritatea dutenek egin behar duten pedagogia, hots, *autoritas* klasikoa dutenek, adituak direnek. Guri ez digute jaramonik egingo, baina Urkulluri agian bai. Oroz gainera, instituzioak utzi behar dio soilik epe motzera begiratzeari, alegia, soilik hurrengo hauteskunderi begiratzeari, eta pentsatu behar du benetan zer den zilegi eta zer ez.

### Baikor begiratzen diozu etorkizunari?

Irabazita dago, ez daukat inongo zalantzarik. Hori bai, beldurra pasako dugu oraindik. Baikor begiratzen diot etorkizunari zeren guk beti sinetsi genuen gutako norbait hil egingo zela. Plazara atera, eta han zeuden 8.000 gizon, mozkortuta, eta kaskoa berotuta, urte osoan esana zietelako ondo zegoela gu egurtzea. Benetan pentsatzen genuen norbait hilko zela, beraz garai hartakoarekin konparatuta, lasai ateratzen naiz orain. Bestalde, ikusi Jaizkibel konpainia, ikusi alardea: etengabe ari da hazten, eta gaztez beterik dago. Baikorra naiz, noski; denbora behar dugu, ez besterik. Hala ere, nire begiz ikusi nahi nuke, eta urteak badoaz aurrera.

### Ez zaizu damutu, beraz.

Oso-oso gaizki pasa dugu, baina gutako edonori galdetuz gero ea damutzen zaion, ezetz esango dizute denek. Ez zait damutzen. Harro, pozik eta garaile sentitu gara. Batez ere, harro: "Beldurrak akabatzen banago ere, egon behar dudan tokian nago". Horixe sentitu dut, eta sentipen horrek ez dauka parekorik bizitzan. ■



## Kalean da azaroko

# aizu!

- Atenasko City Plaza, elkartasunaren hotela
- Aneguria arin-arin
- 'Edonork ez luke': bide baten hasiera
- Gasteizek Kafe Antzokia nahi du
- Oaxacako hizkuntzak ezinean
- Batuak, 50 urte

**Urte osoko harpidetza** (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**  
[aizu.eus](http://aizu.eus)



# Hamarkada luzea

**A**merikako Estatu Batuetan (AEB) duela hamar urte lehertu zen finantza krisia eta oso bizkor hedatu zen Europara, baita munduko bazter gehienetara ere. Atzeraldi handiak indarrean daude oraindik, eta horiek hainbat ondorio txertatu dituzte ekonomian eta gizartean, baita politikara eraldaketa ikusgarriak ekarri ere. Mendebaldeko gobernuek egindako krisiaren kudeaketak, hasieratik lehenetsi zuen bankuen eta finantza sistemaren biziraupena. Ordainean gastu sozialaren murrizketa indartsuak pairatu dituzte, batez ere Europa hegoaldean, aurretik globalizazioak bultzatutako eragin larrienak hauspotuta. Horrenbestez, pobrezia eta desberdintasunak bizkortu egin dira nonahi. Aurreko motelaldietan bezala, gizatalde ahulenak austeritate politiken galtzaile nagusiak izan dira oraingoan ere.

Krisiak II. Mundu Gerraren ostean eraikitako oreka politiko globala astindu du, bere eragina kontuan hartu gabe ulertezina baita Trump presidentearen hautaketa, Brexitaren aldeko botoa edo Europako eta Amerikako hainbat herrialdetako eskuin muturraren gorakada. Krisiaren hasierako larritasuna leundu den arren finantza leherketak sistema kapitalistaren izaera bera aldarazi du. Urteotako krisiak herritarren eskubideen galera ardatz duen ekonomia eta industria erlazioen eredu berria sortu du. Bestalde, enpresa erraldoiek, bankuek, inbertsio fondoek eta teknologia talde handiek gero eta botere gehiago eskuratu dute Estatuaren boterea bera zalantzan jartzearaino. Hala erakusten du adibidez zerga politikaren mugak, izan ere, zerga paradisuen hedapena mehatxu larria da ongizate estatuarentzat.



Mikel Zurbano  
EHU-KO IRAKASLEA

Krisiak II. Mundu Gerraren ostean eraikitako oreka politiko globala astindu du, bere eragina kontuan hartu gabe ulertezina baita Trump presidentearen hautaketa, Brexitaren aldeko botoa edo Europako eta Amerikako hainbat herrialdetako eskuin muturraren gorakada

Haatik, mendebaldeko herrialdeen egungo eztabaida politikoak finantza araugintzaren garrantzia alboratu du eta gastu publikoaren kontrolaren aldeko borrokari eman dio lehentasuna. Gobernu eta politikari kontserbadoreek krisiaren jatorria arrakastaz berrikustea lortu dute eta azpimarra zerga politikaren kontrol gabezia ipini dute berezko kausa –finantza sekto-

rean izandako kontrol eza– ezkutuan utzita. Honela, krisiaren atzean dagoen merkatu librearen porrota moztaratu egin da eta ongizate estatuaren kostuen eztabaida azaltzen da erdigunean.

Europar Batasunean (EB) diru politika hedakorra austeritate politika gogorrekin tartekatu da, hazkunde ekonomikoa sustatu da –ahula bada ere– baina ordainean lan merkatuaren zatiketa eta enpleguaren kalitatean narriadura nabarmena pairatzen ari dira euroguneko herrialde ugari, batez ere gazteak eta emakumeak. Halaber, finantza sistemaren berregituraketak oso bide laburra izan du EBn. AEBetan ez bezala, EBn bankuei emandako laguntzaren zati handi bat ez da berreskuratu –erakundearen estimazioek 200.000 milioi euro baino gehiagoko kopurua aipatzen dute–. Gainera, Estatuak banketxeen azken buruko babesleak izateari uzteko EBk 2012an ezarri zuen helburuak ez du aurrera egin. Ekainean burututako azken gailurrean ez zen urratsik eman Europa mailako Gordailuen Bermerako Fondoa eraikitzeko bidean.

Hondamendiaren hamargarren urteurrenean egonkortasuna urrun dago. Finantza sektoreak munduko ekonomian duen pisua gero eta handiagoa da. *Forbes* aldizkariak urtero egiten duen enpresa handien zerrendako lehen hamarren artean zazpi banketxe daude. Sektoreko araugintzan ezer gutxi aurreratu da eta, beraz, finantzaren esparruko arrisku maila duela hamar urtekoa bezain handia da. Bestalde, egungo munduko zorrak 2007koa aise gaintzen du eta barne produktu gordina baino lau bider garaiagoa da. Interes tasaren igoerarekin eta merkataritzaren protekzionismoan aurrera egiten bada, ondoren agian, duela hamar urteko ez-tanda errepika liteke. ■

# Emakumeen partaidetza kirol erakundeetako erabakietan

**O**rain dela aste batzuk, berdintasuna eta kirola hizpide izan duten toki zein nazioarteko biltzarretan parte hartzeko parada izan dut. Gai oso ezberdinen inguruan hausnartu den arren, gaurkoan, kiroleko erabaki guneetan emakumeen parte-hartzeaz idatzi nahi dut. Zuzenbide arloko aditu batek aitatu zuen, kirol federazioetan “emakumea eta kirola” batzordeak sortzea segregazio modu bat dela, eta emakumeek zuzendaritza batzordeetan beharko luketela, emakumeen gaiak jorratzen dituzten batzordeak zuriketa politiko bezala erabili ordez.

Hasiera batean ados egon ninteke baieztapen horrekin, alabaina, ikerketek eta esperientziak erakutsi digute erakundeetako kultura aldatzen ez den bitartean egitura aldaketek ez dituztela berez emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko berrikuntzak edo aldaketak bermatzen, bereziki, emakume kirolarien egoera hobetzeko ezarri beharreko neurriei dagokionez.

Zalantzarik ez dago erabaki-hartze organoetan emakumeak egotea oso garrantzitsua dela, besteak beste, egiturei itxura iragazkorrago eta anitzagoa ematen dietelako. Baina hori bezain garrantzitsua da erabakietan genero



Ainhoa Azurmendi

KIROL AHOLKULARIA ETA EHU-KO IRAKASLEA

@AinhoaAtxur

**Kirol federazio eta klubentzako kultura aldatu artean, ezinbestekoa deritzot emakumeen batzorde edo erabaki-hartze organo bereziak sortzea, emakumeek beraiek hartzeko haien kirol jardueraren inguruko erabakiak**

ikuspegia kontuan hartzen dela ziurtatzea. Eta zoritxarrez, horren arrastorik ez egotea izan da luzaroan emakumeek

kirol arloan pairatu behar izan dituzten hamaika bidegabekeriaren sustraia. Honetaz gain, askotan, zuzendaritza batzordeetan parte hartzen duten emakume bakanek bi jarrera azaltzeko joera izaten dute: indarrean dagoen kultura maskulinoa barneratu, berau iraunaraziz; edo ahalduz auzkeren ezean, bakardade sentimentuak gain hartuta, amore eman.

Beraz, hainbat kasutan bi estrategiak aplikatzea da egokiena. Kirol federazio eta klubentzako kultura aldatu artean, ezinbestekoa deritzot emakumeen batzorde edo erabaki-hartze organo bereziak sortzea, emakumeek beraiek hartzeko haien kirol jardueraren inguruko erabakiak; besteak beste, zer-nolako diseinua, antolaketa, kudeaketa, baldintzak, eta abar nahi dituzten. Eta badira guzuzen horren beharra luketen kirolariak, esaterako, arraunlariak, futbolariak eta pilotariak. Ez da, bada, kasualitatea izango aipatutakoak tradizioz maskulinoak izateak.

Eta hori guztia kontuan izanda, kuoten aurka daudenei esango nieke energia gutxiago gastatzeko oinarriak gabeko argudio zentzugabeak asmatzen, eta benetan lan egiteko kirolean emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko. ■

**TRADEBI**  
TRANSLATION

[tradebi@tradebi.com](mailto:tradebi@tradebi.com)

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA  
Zure enpresa egokitzen  
lagunduko dizugu

**SIGACUS**

© 943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)

## Prekarioen errealitateak



Endika Alabort  
Amundarain  
EKONOMIALARIA  
@autogestioa

**A**gintariak estatistika zerbitzuek eskaintzen dituzten datuak era baikorrean irakurri dituzte. Bai langabezia, bi digituetako zenbakia atzean utzi baitu, baita hazkunde ekonomikoa, nahiz eta joera beherakorra den. Nire lanbideko hainbat kideren analisisa antzekoa da, krisia atzean utzi dugula, kontratazioa gora egin duela, enplegua arin lor daitekeela. Baina, nire iritziz, krisiak gizartean egin duen haustura oso handia eta larria da.

Gizartearen zati hazkor bat oinarrizko eskubide sozialik gabe geratzen ari da, azken hamar urteetan pairatutako Errezesio Handia dela eta. Enplegua eta familia bateragarri egiteko politiken artean, lan jardunaldi murriztapena dago; baina lan merkatuan emandako aldaketak direla eta, egia esan, langile askok ez dute eskubide hori bermaturik: behin-behineko kontratu prekarioak lotzen dituen emakume batek badaki bere eskubidea eskatzerakoan, ez diotela kontraturik berrituko. Haurra izatea buruan badu, enplegua galtzeko arriskua handia da.

Demagun emakume horrek etxebizitza bat alokatu nahi duela, bankuek noski, ez diote hipotekarik salduko eta. Gero eta sarriagoa da berme bat eskatzea eta merkatu librean dauden etxebizitzaren prezioa urtez urte puztuz joan da. Lan prekarioek, soldata baxukoak eta behin-behinekotasun handikoak, ez dute gurasoen etxetik ateratzea errazten.

Elikagai ekologiko eta arropa etikoa kontsumitzea nahi izango du. Baina enplegu prekario hauekin, soilik txatar-sasi-elikagaiak edo pestizidez kutsatutakoak izango ditu eskuragarri; Asiako langileak zapaltzen dituzten multinazional baten arropa merkea erosiko du, beren soldatarekin ezinezkoa izango baitzaio etikoa erostea.

Sarritan, ingurua bakoitzaren errealitateak azaldu ohi dugu. Honen adibide bat da ezagutzen dugun kasu konkretu batetik orokortasuna dela pentsatzea, estrapolazio falazia. Lehenago aipatu ditudan lanbide-kideek ez dute horrelakorik ikusten, errealitatea euren bizi mailatik azaltzen dutelako. Baina antzeko joerak ikusi ditut enplegu egonkorra dutenen aldetik (sarritan, pertsona helduak). Ez dute ulertzen zergatik jaiotza tasa hain baxua den, legean lortutako aurrerapenekin; ez dute ulertzen nola askok gurasoen etxetik atera ez diren; ez dute ulertzen nola ez duten organikorik kontsumitzen, baka-rrik apur bat garestiagoa baita.

Ez dute ulertzen prekarietatea bizitzaren atal guztiak zeharkatzen dituela, bizitza duin bat bizitzeko aukera galaraziz. Horregatik, gizarte kapitalista honetan enplegua hobetzea beharrezko baldintza da. Enplegu egonkorra baduzu, ez ezazu prekarietatea txikikeria baltz legez hartu. ■

## Beste hitz bat zakarrontzira



Itziar Bardaji  
Goikoetxea  
NUP-EKO IRAKASLEA

**H**aurrik eduki ezin duenak eskubidea al du beste emakume baten gorputza erabiltzeko? Merkatu kapitalistak ez du gorputzekin trafikatzeko arazorik. Libertatea defenda dezagun: bere uteroa alokatzen duenak erabaki "librea" hartzen duen bitartean, diruduna ere libre da bere diruarekin nahi duena erosteko. Eskubidea du. Amatasuna eskubidea al da?

Beren seme-alaba nerabeei mugikor berri bat erosteko "beharra" duten giza-onek lana edukitzeko eskubidea ere omen dute: eskubidea esplotatua izatekoa. Instituzioek lana bermatu beharko lukete, langabezia daude-

nak kontratatu, beharrezko diren edo ez diren jarduerak egiteko. Ba al du zentzurik horrek?

Yemengo haurrek elikatzeko eskubidea dutela idaztean, eskubide hitzaren letrak urtu egiten direla iruditzen zait. Aireak eramaten ditu, hondarrez eginda balira bezala.

Presoek ere eskubideak omen dituzte. Eta badira urte batzuk Euskal Herrian eskubide horiek modu akasgabe zibilizatuan "eskatzen" ari garela. Eta eseri egiten gara eskubideak noiz iritsiko, apur bat atzeratzen diren autobusak bailiran.

Eskubidea gaitasuna baino ezer gehiago al da? Hitz honek zer baitetarako balio al digu? ■

# Errotik berritu

Euskal Herria komunitate beregaina eta independentea izan daiteke etorkizunean, eta horixe da bertan bizi garenoi komeni zaiguna. Jakin behar dugu, ordea, bideak zabaltzen. Kontu hau oso modu egokian ari da plazaratzen Eusko Ikaskuntza, bere Kongresu ibiltarian (Baionatik Oñatira, Gasteiz, Iruñea, Bilbo eta Donostia bidean eginda), eta hortik irakaspen bikainak lortuko direla uste dut.

Azkenaldian han eta hemen zabaltzen ari da kezka: ez ote den gero eta ahulagoa Euskal Herriaren izaera komunitarioa. Ez dagoela lurralde guztiak elkartzeko moduko sinbolo edota ikurrik; administrazio berezituaren egunerokotasunak urrundu egiten gaituela elkarrengandik, edota euskaldun izatearen kontzientzia bera lainotzen ari dela, batez ere belaunaldi berrietan.

Euskal Herria ez da asmakizun akademiko edo politikoa, errealitate errotua da, eta erro horiek ondo zehaztea komeni zaigu, gerora proiektatzen dugun komunitate beregainak oinarri sendoak izan ditzan

Euskal Herria ez da asmakizun akademiko edo politikoa, errealitate errotua da, eta erro horiek ondo zehaztea komeni zaigu, gerora proiektatzen dugun komunitate independenteak oinarri sendoak izan ditzan. Kontua ez da orain daukagun puzzle soziologiko-linguistiko-administratibo honetako zatiak elkarren ondoan jarri eta horri konfederazio plurala deitzea. Zatiketa, za-



Karmelo Landa Mendibe

HISTORIALARIA  
@karmelolanda

palkuntza, inposaketa edo ordezkatzeko behartua ezin direlako, besterik gabe, “aniztasun librearen agerpen” kontsideratu. Goazen, beraz, erroetara eta ikus dezagun benetan zergatik eta zertarako merezi duen Euskal Herria eraikitzea. Zeintzuk diren nazio eraikuntza horren helburu kolektiboak.

Etorkizuneko Euskal Herria ez da paper zuri baten gainean marraztu daitekeen zerbaite. Errealitate gordinaren gainean ari gara lanean. Barne eta kanpo errealitate ezin gordinagoa, baina irakaspenez bete. Katalunia gundik hurbil dugu, zentzu guztietan. Prozesu katalanak ireki du une honetan Espainiako Estatu esklerotikoaren krisi sakona, eta hori bera guretzat ate irekia izan daiteke, Euskal Herria eraikitzeko estrategia partekatua adosteko gai bagara. Behar den denbora guztia emanda, baina helburuetan argia eta erabakietan ausarta eta koherentea.

Euskalduntasun berriaren baloreak ez dira esentzia abstraktuak, ez dira amets utopikoak. Balore zehatz eta sustraituak dira, euskaratik hasi eta gure kultura komunitarioak dituen ezaugarri positibo guztietatik jarraituz. Gure historiaren irakurketa positiboak gure esku jartzen duen oinordetza benetako altxorra da etorkizuneko euskaldunon komunitatea irudikatzen duen orduan. Euskal Herriaren jakintza partekatu behar dugu eta nazio eraikuntzan proiektatu. Baina has gaitezen, orduan, horretarako tresnak eskuratzen: hezkuntza sistema independentea, komunikabide-sare beregaina, sistema politiko-administratibo beregainak. Has gaitezen gaurtik geure buruaren jabe izaten.

Errotik berritu, etxetik hasita. Ituna bertan, ezer baino lehen. Aski da alde bateko *L'ésprit republicain* eta besteko

Euskalduntasun berriaren baloreak ez dira esentzia abstraktuak. Balore zehatz eta sustraituak dira, euskaratik hasi eta gure kultura komunitarioak dituen ezaugarri positibo guztietatik jarraituz

*Pacto con la corona* horietaz. Mila ipuin kontatu digute orain arte, gainean jarri dizkiguten bi sistema inposatzaile eta asimilatzaileak zuritzeko intentzioz, baina estatu horien krisia, itxikeria eta inboluzioa inoiz baino nabarmenagoak dira orain. Badugu zer irabazi euskaldunok Euskal Herria errepublika independente bezala antolatzen badugu. Eraikuntza langileak behar dira hemen. ■



# EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



*eman izena*

---

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

Derioko seminarioko itxialdia

# ELIZA ALDATU ERREGIMENA SUNTSITZEKO

1968ko azaroan 60 abade inguruk Derioko seminarioa okupatu eta ia hilabeteko itxialdia egin zuten, hierarkia katolikoak frankismoarekin zuen konplizitatea salatu eta Eliza errotik aldatzea eskatzeko. Errepresioaren aurrean geldirik egoteaz asperturik zegoen jende eta mugimendu askoren katalizatzaile bihurtu ziren abade horiek 60ko hamarkadan, eta gogorrago erantzun behar zela jabeturik, "Gogor" taldea sortu zuten. Pulpituek oraindik botere itzela zuten garaian, haien erabateko aktibismoa oso garrantzitsua izan zen erregimena suntsitzen hasteko. Baina garesti ordaindu zuten.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

**Urko Apaolaza Avila**

@urkoapaolaza

Eraikin erraldoi hartako sekretu guztiak ederto ezagutzen zituen Josu Barandikak (Bermeo, 1939), han egin baitzituen 13 urte ikasten. Horregatik, azaroaren 5 hartan arazo barik sartu zen bigarren eskuko *cuatro latas* bat gidatzen Derioko seminarioa, ordurako inguru guztiak poliziak hartuta egon arren. Donibane Lohizunetik zetozen zuzenean, bezperan abadeek hasitako itxialdia lau

haizetara zabaltzen lagundu zuen prentsaurrekoa ematetik, Juan Mari Arregi eta Angel Zelaietarekin. Telesforo Monzonen bidez Piarres Xarritonen Angeluko abadetxean bildu zituzten *The Times*, *Le Monde*, *Reuters* eta nazioarteko beste medio askotako kazetariak: "Gaia oso larria zen, seminario oso bat okupatu genuen, eta prentsaurreko hura izan zen gure bozgorailu indartsuena", oldoztu du Barandikak 50 urte eta gero.

1968ko azaroaren 4an hasi eta hogeitabost egunez Derioko seminarioan iraun zuen Bizkaiko dozenaka abaderen itxialdia ez zen gertaera isolatua izan,

Euskal Herriko eliza barruan abade eta apaizgai gazteen artean zegoen ezinegonaren beste kate begi bat baizik. Frankismoaren zapalkuntza ikusi eta bizi zuten gazteok, hierarkia eklesiastikoak erregimenarekin zuen lotura estua salatu ez ezik, "kapitalismoaren asmo eta bizieraren menpe" ez zegoen beste Eliza bat aldarrikatzen zuten, *Euskal Herri Langilea* deiturikoaren aldekoa.

Oker dabil uste duenak urruneko historia bat dela honakoa, orain bezala lehen ere, sistema aldatzeaz ari baitziren erlijio eta fedez baino, egun indarrean dirauen sistema bera aldatzeaz hain zuzen.



*Derioko eraikinak ospitale psikiatriko izan behar zuen 1931n proiektatu zutenean. Gerra ostean seminario funtzioa hartu zuen eta 1960an inauguratu zuten ofizialki, lehendik martxan zegoen arren. Gaur egun hotelak, enpresak eta jatetxeak biltzen ditu.*

Derioko ekintzarekin Vatikanoren eskuartzea lortu nahi izan zuten, eta halakorik izan ez bazuten ere, Jose María Cirarda gotzain euskalduna Bizkaiko administratzaile apostoliko izendatzeak aldaketaren bat ekarriko zuelakoan amaitu zuten itxialdia. Itxaropen apurrak berehala zapuztu ziren ordea: kartzela, erbestea, torturak, isunak... eguneroko ogi izaten segitu zuten.

### **Parrokiak frankismoaren kontrako aterpe**

1936an “gurutzada” frankista abiatu zen une beretik topatu zituen espai-

niar Eliza Katolikoak disidentek bere baitan. Ez ahaztu kolpistek fusilatutako euskal apaizak, haietako batzuk, Jose Aristimuño Olaso *Aitzol* kasu, Ondarretako kartzelan aurpegia desitxuratzeraino torturatuak izan ondoren. Mateo Mugika Gasteizko gotzaina, berriz, zokoratuta eta itsu hil zen Zarauzko deserrian, bere kontzientziak altxamendua ez babestea agindu ziolako.

339 euskal abadek 1960an sinaturiko gutunak, euskal disidentzia berriz azalerazi zuen. ETA bi urte lehenago jaio zen, eta abadetxeak nahiz komentuek borroka klandestinoaren aterpe

bilakatu ziren. Herri Gaztedi eta antzeko taldeen bidez kultur ekintzak bultzatu zituzten herrietan. Orozkon esaterako, Barandikaren parrokiak, aurre-ikastaro sozial batzuk antolatu zituzten.

Zergatik sartu ziren halakoetan? Galderak erantzun erraza du abade ohiarentzat: “Geure kanpandorreak erabili genituen”. Elizak herritarren artean indar handia zuen, baina aldi berean diktaduraren menpeko zen, eta kontraesan hori aprobetxatu zuten jendea batzeko: pertsegitutakoak, bizirauteko zailtasunak zituztenak, langileak... “Geure sermoietan eskubideez berba egiten genuen”.



Sermoi horietako baten ondorioz, hain zuzen, isuna jaso zuen Juan Mari Arregik (Durango, 1941), torturen eta atxiloketen kontra predikatzeagatik. 25 urterekin ordenatua, Ortuellako meatze gunetan hasi zuen abadetza eta hango langileen egoeraren eta errepresio politikoaren lekuko izan zen: "Lehenengo erreakzioa izan zen sermoien eta idatzien bidez salatzea, baina eliz hierarkiari erregimenaren konplize izaten jarraitzen zuen".

1966ko sasi-erreferendumaren ostean, abade eta fraide talde batek Francorik gutun irekia bidali zion, gazteleraz eta euskaraz, Bizkaian lehen aldiz ezarri zen salbuespen egoeraren aurrean: "Zuk eta zure Gobernuak erabaki ori hartzeko zeuen baitako arrazoiak izango dozuez nunbait (...) Baña aitaturako gertaerak

» **JOSU BARANDIKA:**

"Epe luzerako zerbait izango bazen ezin genuen katedral batean sartu, halako eraikina behar genuen: oheak zituen, salak... eta ondo ezagutzen genuen. Baina batez ere, erresonantzia kaxa handi bat izan zen seminarioa

*Ezkerrean, Josu Barandika; 1968ko itxialdian parte hartu zuen. Erdian, Derioko "seminario txikiko" sotoa eta lehen pisua –hor egin zituzten abadeek batzarrak okupazioak irauin bitartean– eta eraikin barruan garai hartako eserlekua hautsak janda. Eskuinean, Juan Mari Arregi; abadeen bozeramaile lanak egin zituen.*

*eta gure erriko situazio lotsagarri ta norabako au ikustean, gure samin-deadarrta ta uko-garraxia zuganaño jaurti barruk ezin geratu".*

"Hitzak ez ziren nahikoa ordea –dio Arregik–, ekintzetara pasatzeko ordua zen".

**Gogor taldea**

Apaizen artean bazeuden iritzi ezberdinak, gogorrako jokatu behar zela ziotenen eta hori garbi ikusten ez zutenen artean. Begoñako Gogo-Jardunetako Etxea eztabaiden eta egitamuen epizentro bilakatu zen. Ardura eklesiastiko goragokoetan zeudenek "politika" egitea egozten zieten abade engaiatuenei, hain zuzen gerraz geroztik inposaturiko antolaketa politikoa baliatzen zuten berek.

Abadeen Koordinakundearen bildu ziren ekintzak prestatzen hasteko –"Gogor" izena Derioko itxialdia baina pixka bat lehenago hasi ziren erabiltzen, Gogorkeriaren aurka gogortasuna lelopean–. 1967an jo zuten lehenengo efektu kolpea: Bilboko Gran Vía sotanadun manifestariz bete zen, greba luzea zeramaten Etxebarriko Laminaciones de Bandas fabrikako langileekin bat eginez.

Halaxe iritsi zen 1968 urtea. Marthing Luther King hil zuten urtea. Eta Txabi Etxebarrieta. Paris. Praga. Vietnam. Arantzazuko batzarrak eta Zamorako kartzela. Meliton Manzanak. Itziarren semea. Bosgarren asanbladaren ondorioak. ETaren barruan fronte ezberdinen sorrerak ekarriko du erakundea "herriko gaitan sartzea", Barandikaren hitzetan, eta horrek eragin handia izango du hurrengo urteetan.

1968ko uztailean eta abuztuan abade talde batek itxialdi bi egingo ditu Bilboko gotzaindegiaren bulegoetan, besteak beste Etxebarrietaren aldeko hiletametak debekatzen Gobernadore Zibilak kaleratutako agindua arbuiatzea eskatzeko. Erantzuna betikoa da eta Lazkao-ko Beneditarren artxiboan gordetzen den gutun batean leitu dezakegu: "Sirve de escándalo a los fieles, y de ofensa a la Iglesia y a la Patria".

**Derio: "Lau, lau, mila"**

Azaroaren 4an, arratsaldeko lauretan, eta mantenu gastuetarako mila pezeta poltsikoan. *Lau, lau, mila*. Horixe zen Derioko seminarioko atarira joateko kontsigna. Betiko erantzunez aspertuta, zerbait indartsuagoa egiteko asmoz planeatu zuten ekintza hura abadeek. Baina zergatik Derio? "Epe luzerako zerbait izango bazen ezin genuen katedral batean sartu –dio Barandikak–, halako eraikin bat behar genuen: oheak zituen, salak... eta ondo ezagutzen genuen tokia zen, hori inportantea zen. Baina batez



## CIRARDA GOTZAINAK EZ ZITUEN TORTURAREN ARRASTOAK IKUSI NAHI IZAN

Juan Mari Arregi

Jose María Cirarda gotzaina (Bakio 1917, Bilbo 2008) pertsonalki ezagutu nuen Derioko seminarioko okupazioan. Gotzain horrek okupazioan izan zuen patera nabarmendu nahi nuke, itxialdian zeuden abadeen bi bozeramaileetako bat izanik – bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz– berarekin jardun bainintzen.

Geroztik ez nintzen inoiz gehiago berarekin egon, baina pentsatzen dut ez zituela sekula nire hitzak ahaztu, are gehiago irakurrita askoz geroago, 1996ko azaroan, bere “azken konfesio pertsonala”. Erbestean nintzenez, hiltzorian zegoen gure aita bisitatzera joan zen 1971n Basurtoko ospitalera, eta hori ere bada beste arrazoi bat lehen esan dudana pentsatzeko.

Gogoan dut Derioko seminarioko okupazioaren azken egunetako batean Cirardari esan niona. Itxialdiari amaiera emateko asmotan etorri zen, Pablo Gurpide otsagabitarra gaixotasunak jota hil zenean administradore apostoliko izendatu baitzuten.

Seminarioko areto batean geunden bilduta abade guztiak Cirarda monsinorea agertu zenean. Saiatu zen okupazioa utz genezala konbentzitzen, eta orduan hitza eskatu nuen. Isiltasun handi bat egin zen eta zera esan nion: “Goztzen jauna, gure herriak jasaten duen errepresioa, atxilotetak eta tortura salatzeagatik Jesukristo bezala gurutzera igotzeko prest bazaude, euskal herritarren eta pertsona gizatiarraren eskubideak defendatzeko prest, ziur egon gu guztiok zure atzetik joango garela, zurekin. Baina Elizaren

» Agian nire lotsagabekeria eta ahotsaren indarraz harrituta, Cirarda begira jarri zitzaidan adi entzunez. Baina ez zuen ezer esan. Hilabete batzuk geroago bai, etorri zen erantzuna: ez zegoen prest gurutzera igotzeko



*Goiko argazkian Jose María Cirarda (betaurrekoekin) Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako apezpikua. 1968an Bilboko gozaindegiko administratzaile apostoliko izendatu zuten. Behean, 1967an abadeek Bilbon egindako manifestazioaren irudi bakanetako batzuk Venezuelako ‘Gudari’ aldizkaritik hartuak.*

ohiko isiltasun konplizea mantentzen baduzu, borrokan eta salatzen jarraituko zaitugu”.

Agian nire lotsagabekeria eta ahotsaren indarrak harrituta, Cirarda begira jarri zitzaidan adi entzunez. Baina ez zuen ezer esan. Hilabete gutxi batzuk geroago bai, etorri zen erantzuna. Ez zegoen prest gurutzera igotzeko, ez baitzen ausartu 1969ko maiatza arte atxilotutako ehunka pertsona laikok jasandako torturak salatzerara, ezta bere abadeek jasandakoak ere. 1969ko apirilean errepresio gogorra izan zen, batez ere Bizkaian eta abadeok ere kolpatu gintuen. Batzuk atxilotuak izan ziren eta haietako gehienak Zamorako konkordatu-kartzelan giltzapetu zituzten. Beste batzuk, nire kasuan bezala, Frantziako Estaturantz egin ahal izan ginen, erbestera.

Abade horietako bat, Martin Orbe, modu basatian torturatu zuten. “Beldarra”, “paseilloa”, “kirofanoo”... Denetarik egin zioten. Cirarda espetxera joan zen Orbe ikustera. Honek torturaren arrastoak erakutsi nahi izan zizkion eta prakak jaisten hasi zen, baina gotzain

nak esan zion ez halakorik egiteko, berak esandakoa sinesten zuela. “Nola ez dut nire abade bat sinetsiko?”, esan zion.

Hilabetea igaro ondoren, Cirardak eta Jacinto Argaya Donostiako gotzainak –honek ere Jon Etxabe bere abadeetako batek jasandako torturen lekukotza bazuen– pastoral bateratua zabaldu zuten: “Datua [torturarena] objektiboa balitz, autoritate agente batzuen partetik biolazio injustuak egin direla esan nahiko luke. Asmaturiko edo nahita puztutako datua balitz, ordea, autoritatearen kontrako propagandan biolentzia injustu bat egongo litzateke. Ez da erraza egia zehatza jakitea, batzuek baieztatu eta besteek ukatu egiten baitute, eta gertakari horien izaeraren ondorioz ere sekretuak indar handia baitauka...”.

Bere memoriatan, Cirarda jauna saiatzen da idatzi hori justifikatzen: “Ez zen koldarkeria izan. Tortura horien frogak ez izateak geldiarazi gintuen”.

Ez, Cirarda monsinorea, ez zenituen arrasto edo froga horiek ikusi nahi izan, ezta konpromisorik hartu ere, ez zinela inoiz gurutzera igotzeko prest egon! ■

## KILI-KILI-TIK ARGIA-RA: GOGOR DISKOAREN 50 URTEAK

Melaminazko mahaien egur iluna hautsak hartuta dago *Kili-kili* aldizkariaren Bilboko Artekaleko erredakzio zaharrean. Armairu baten barruan, alanbre oxidatuz itxitako 40x40 cm inguruko kaxatan sartuta aurkitu dugu altxorra: *Gogor* diskoak.

Duela 50 urte Derioko seminarioko itxialdia egin zuten abadeek grabatu zuten diskoa, borroka luze hark iraun bitartean abesten zituzten doinuekin. Baionako Agorila zigiluak argitaratua –2012 CDan berrargitaratu zuen–, frankismoaren kontrako erresistentziaren ikur bilakatu zen berehala.

Baina zer egiten zuten diskoaren binilozko 700 ale baino gehiagok *Kili-kili*-ren egoitzako armairuan gordeta? Aldizkariaren sortzaileaz pare bat berba egin behar historia hau ulertzeko.

### Jose Antonio Retolazaren magnetofoaia

Jose Antonio Retolazak (Bilbo, 1929-2014) txikitik galdu zuen euskara, baina bere kabuz berreskuratu zuen, Gasteizko seminarioan. “Eliza eta euskara izan ziren beti bere bidea”, dio Etxahun Galparsoro haren suhi eta Lazkaoko Beneditarren artxiboko teknikariak. Hala, 1959an Arrazolan abade zebilela, berak antolatu zuen lehen aldiz meza euskaraz, eta 60ko hamarkadan *Kili-kili* pertsonaia sortu zuen Bilboko San Anton elizako katekesiaren babespean, haurrak euskaraz alfabetizatzeke, gerora komiki aldizkari ezagun bihurtuko zena.



“*Kili-kili*” haurrentzako aldizkaria zenaren egoitzan, Bilboko Goienkale edo Somera kalean, ‘*Gogor*’ diskoaren 700 ale inguru topatu dituzte Jose Antonio Retolazaren senideek, lehenago Basauriko zulo batetik erreskatatuak. Horri eskerrak, klandestinitatearen eta jazarpenaren ondorioz banatu gabe geratu ziren binilozko diskoak eskuragai jarriko ditu berriz ARGIAk bere komunitateko kideen artean, 50 urte geroago.

Retolazak elizaren hierarkiaren kontra joatea hautatu zuen, eta 1960an Francoren kontrako 339 abadeen gutuna sinatu zuen. Hala “hondatu” zuen eliz karrera, bere lagun kutun Juan Uriartek ez bezala: “Firmatu izan baleust gaur ez zan gotzain izango”, dio autobiografia liburuan oraindik Donostiako gotzain emeritu denaz.

1968an Derioko okupazioa gertatu zenean, on Klaudio Gallastegi San Antongo abade ezaguna seminarioraino eramane ohi zuen Retolazak autoan, itxialdian zeudenei meza emateko. Eta berekin batera Grundig magnetofoi handi bat ere bai. Dirudienez, makina horretan jaso zituen abade errebeldeen lehen abestiak.

“Baina diskoa ez zen seminarioan grabatu”, argitu digu ziur Xabier Amurizak (Etxano, 1941). Derioko borrokaren inguruan testigantza bat uzteko helburuz sortu zen diskoaren ideia, behin itxialdia amaituta: “Pentsatu genuen bildu behar zela talde bat kantatzeko esperientzia genuenon artean, 20 edo 25 izango ginen, eta grabazioa Zornotzako karmeldarren komentuan egin zen”.

### Camarade-curé

Atzean mezu politikoa zuten euskarazko kanta liturgikoak jaso zituzten, baita bertso sorta ezagunak –edo Amurizak itxialdiaz egindakoak– eta bogan zeuden abestiak ere, Julen Lekuonaren *Ez, ez dut nahi* ospetsua adibidez.

ere, erresonantzia kutxa handi bat izango zen seminarioa”.

Itxialdia ez zuten egunetik biharamunera pentsatu. Aurretik euren mezua ondo landu zuten txosten zabal batean. Idatzi horren hezurdura Luis Mari Laibarrak egin zuen, Orozkoko Urigoiti auzoko abadeak. Barandikaren etxe berean bizi zen Laibarra: “Berak armatu zuen dokumentua, idazten zuen eta gero gauean komentatzen genuen”.

Azkeneko ukituak Periko Berrioategortuaren Zornotzako etxean egin zizkieten, eta itxialdiaren bezperako egun euritsu batez tren geltokian utzi zuten txostena, Martin Olazarrek eta Juan Mari Arregik Erromara eramane zezaten: “Euskal Herriarekin lotura zuten gogoi arduradun erli-

jiosoen bidez saiatu ginen Paulo VI.a Aita Santuari helarazten, baina ez zen erantzun ofizialik izan”, dio Arregik.

Hortik denbora gutxira gauza bera egiten saiatu zen, alferrik, Martin Orbe abadea. Eta urtebetera polizia Bilboko Artekaleko operazioaren harira atxilotu

» Oker dabil uste duenak urruneko historia bat dela honakoa, orain bezala lehen ere, sistema aldatzeaz ari baitziren, erlijio eta fedez baino

zutenean, larrutik ordainarazi zizkieten halako atrebentziak [ikus 25. orrialdeko artikulua]. “Ezin zara torturaren zamapean egon bizi guztian” aitortu du berriki ARGIArekin (2.613 zk.) izandako elkarrizketan.

Derioko seminarioko atea gurutzatu orduko, agertoki politikoa gogor baten parte bihurtu ziren abadeak. Poliziaren zortzi Seat 1500, hiru jeep eta bi autobus. Agenteak barrura sartu nahian. Seminarista eta irakasleak haien parean. *A divinis* zigorra eta meza gabeko igandeak herri askotan. Abade katalanen elkartasuna: “*Amb la situació en que es troba tot el Poble Basc*”.

Espainiako Estatuko prentsan *curas rebeldes* edo *curas problemáticos* dei-

» **XABIER AMURIZA:**  
 “Pentsatu genuen bildu behar zela talde bat kantatzeko esperientzia genuenon artean, 20 edo 25 izango ginen, eta grabazioa Zornotzako karmeldarren komentuan egin zen”

Hain justu, azkeneko doinu honen gainean ahotsa jarri zuen Colette Magny kantari ezkertiar frantziarrak, handik bi urtera diskoa bere eskuetara iritsi zenean. “Apez laguna, zigortu zaituzte / Baina zure zigorra herriak beregain hartu du eta jujatu / Izendatua den apez berriak ez du nehor izanen mezan”, dio *Camarade-curé* abestiak frantsesez. Orain, kanta horren genealogia eta euskal abadeen historia oinarri hartuta, dokumentala estreinatuko du Pierre Prouveze zinegileak.

Itzul gaitezten 1968ra. Behin grabazioa eginda, haren masterra Ipar Euskal Herrira eramane zuten Amuriza eta Retolazak, azkeneko honen *mini-morrisean*, eta haiekin on Klaudio: “Errespetua sor zezakeen norbait behar genuen muga pasatzeko eta abade hura, bere 150 kilo eta sotanarekin, pertsona

egokiena zen”, gogoratzen du Amurizak. Jendarmek alto emanatik lortu zuten kopia hura Telesforo Monzonen eskuetan uztea.

Amuriza eta Derioko beste abade asko jadanik Zamorako kartzelan zirela ikusi zuen argia *Gogor* diskoak 1969ko maiatza inguruan. Erabat klandestinioki zabaldua eta guztiz jazarria izan arren –poliziak haren atzetik ibili ziren etxe partikularrak eta baita Euskaltzaindiako egoitza miatuz ere– oihartzun handia izan zuen. Ez zen meza soil bat, zapalduta zegoen herri baten garrasia baizik.

### ARGIAk zabalduko ditu

Urte askoren ondoren, Julian Goikoe-txea izeneko lagun bat hurbildu zitzaion Iñaki Egurrolari kalean. Egu-rrola Euskerazaleak elkartekoa izanik –*Kili-kili* hasieratik babestu zuena–, esan zion bazuela beraiena zen gauza bat. Burdina lantzeko Basauriko tailer batean, pisu handia zuen mahaia ezkutuko palanka batez mugitu zitekeela deskubritu zuten eta haren atzean zulo bat: han zeuden 12 hatz-beteko LP bini-loak. Halaxe eraman zituzten *Kili-kili*-ren egoitzara.

Berrogeita hamar urteren ondoren, frankismoaren errepresioaren ondorioz egiteke geratu zen lana amaituko du ARGIAk, eta disko horiek zabalduko ditugu gure komunitateko kideen artean. Durangoko Azokako standean izango dira eskuragai, baita gure web-gunean ere ([azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus)).

tzen zieten bitartean, nazioarteko prentsan ekintzaren arrazoiak zehatz plaza-ratu zituzten.

Itxialdiaren zabalpena egiteko talde bat sortu zen abadeen artean, hala nola seminarioko erretoreekin hitz egiteko eta jatorduak antolatzeko beste talde bana. Bilboko Cantábrico tabernan prestatzen zituen hango jabeak –gero Iñakiren Taberna ireki zuenak– seminarioko *okupentzako* otorduak: “Nik uste Iñakik gehiena dohainik egin zuela”, dio Barandikak eskerroneko irribarrea ahoan. Ekintza hura diruz lagundu zuen jende anoni-mo asko izan zen.

Iluntzen zuenean, gauaren babesean, herrietara joaten ziren seminarioko

itxialdian zeudenak, euren arrazoiak azaltzera. Lepo betetzen ziren aretoak. Hura ez zen greba bat, Elizaren kontra zuzenean sartzea baizik: euren eginkizuna bideratu nahi zuten “azpiratuta” zegoen herri baten alde.

Gaixo zegoen Pablo Gurrupide gotzaina hil eta Cirarda Bilboko gotzaindegiaren kargu egin ostean, handik egun batzuetara irten ziren abadeak seminariotik. Zergatik? Aste horietan idatzi zituzten buletin informatiboen azkeneko zenbakian azaldu zuten: “*Eskatutakotik eztauskue emon baina urtetzea erabagi dogu. (...) Kanpoan aurrera egiteko asmoa daukagu, gure elburuak lortu arte gure Erriagaz batera ta geure Erriaren onerako*”.



1968ko azaroan Derioko seminarioko okupazioa hasi aurretik txosten mardula idatzi zioten Paulo VI.a Aita Santuari, Euskal Herriaren egoera azaldu eta abadeen eskariak laburbilduz –besteak beste Euskal Herri osorako gotzain batzordea sortzea–. Luis Mari Laibarra Orozkoko Urigoiti auzoko abadea izan zen testu hura egituratu zuena, eta Josu Barandikaren ustez Askapenaren Teologiaren aitzindari izan liteke, 70eko hamarkadatik Hego Amerikan arrakasta handia izan zuen kristau-korrontea. Funtsean, euskal abadeen testuak Eliza Pobrea, Askea, Bizia eta Bertokoa aldarrikatzen zuten: “*Bertoko* hitza ‘indigena’ bezala ere itzuli genuen apropos –dio Barandikak–, Hego Amerikako mugimendu indigenistek begira, gurea ere umiliatutako herria baitzen”.

### “Elizak aldatu gintuen gu”

Herri mugimenduei laguntzea hitzemandamanda amaitu zuten okupazioa abadeek. Askok uko egin zioten Estatuaren soldadari, lan zibilak bilatu zituzten, eta erakunde sindikal edo politikoetan hartu zuten parte; protestekin ere jarraitu zuten, 1969ko maiatzean abade talde batek egindako gose-greba kasu. “Eliza aldatu nahi izan genuen eta berak aldatu gintuen gu”, dio Juan Mari Arregik.

Atxiloketak, torturak, urte askotako zigorra Zamorako apaiz-kartzela berezian, erbestea... Hartutako konpromisoak errepresioaren jomugan jarri zituen abade asko eta Gogor taldea praktikan desmantelaturik geratu zen. Baina *Gogor* diskoa utzi zuten oroimenerako. ■

# “Beltzon askatasunak pertsona oro askatuko du”

Jade Daniels (1992, AEBetako Ipar Carolina) etengabeko mugimenduan dabilen artista, ekintzaile eta idazlea da. Kazetaritza ikasketak egin zituen eta egun, *Glassroots Global Justice Alliance* elkartearentzat komunikazio arduradun gisa egiten du lan, Los Angelesen. Horrez gain, *Black Lives Matter* mugimenduko kide aktiboa da, baita *Santchpower*, artista afro-futurista queerrek osatutako kolektiboaren zuzendaritzako kide ere.



**Nerea Eizagirre Telleria**

ARGAZKIAK: IRANTZU PASTOR

## **Beltza eta emakumea, AEBetan. Noiz hasi zinen kateak sentitzen?**

Nerabezaroan sentitu nuen haien es-tualdia. Ipar Carolinako haurtzainde-gian kolore guztietako haurrez ingura-tuta ginen, baina gero, institutu garaian, Coloradora mugitu ginen; eta klaseko beltz bakarra nintzen. Onartua izan as-moz, txuriak bezala janzten eta hitz egi-ten hasi nintzen.

AEBetan emakume beltz eta queerra izateak, ikusezin izatea dakar. Ez zara existitzen. Ez zaituzte ikusten, ez zai-tuzte aditzen. Eta ikusia edo aditua ba-zara, berehalakoan “arazo” bilakatuko

zara eurentzat. Gehiegi hitz egiten omen dugu, espazio larregi geureganatzen. Testuinguru horretan biziraun ahal izateko, isilik egoten ikasten duzu gazte-gaztetatik, ezinbestean.

## **Zerk eragin zuen aktibismoarako jauzia ematea?**

2016ko udara zen. Poliziak Philando Castile erail zuen, haren neska-lagun eta umearen aurrean. Handik egun gu-txira, New Yorken, beste pertsona beltz bat tiroz hil zuen Poliziak. Garai hartan, ume-zaindari lanetan ari nintzen Los Angeleseko familia txuri batentzat. Fa-

cebooketik ikusi nuen *Black Lives Mat-ter*rekoak Los Angeleseko udaletxean kanpaldia egiten ari zirela, protesta gisa.

Hara nindoala, jendea haserre topa-tuko nuela espero nuen. Hedabideek beti islatu ohi dituzte pertsona beltzak haserre eta oihuka protestaldietan. Iri-tsi nintzenean, hura sorpresa! Denak borobilean jesarrita ikusi nituen, abes-ten eta danborrak jotzen, lagun-giroan. “Hi sister!”, beso zabalik hartu nindu-ten. Gau hunkigarria izan zen, malko-ren batzuk ere isuri nituen. Estreinakoz, etxean sentitu nintzen. Udara osoa igaro nuen bertan, gau eta egun kideekin. Li-





» “Arrazismoaren aurka borroka egin nahi badugu, nahitaez, Afrika askatu behar dugu”

» “Erasoak eguneroko ogi zaizkigu. Pertsona beltzok ez diogu Poliziari deitzen eraso bat edo lapurreta bat jasanez gero”

etena egon da. Errepresioak eragin handia izan du. Alde batetik, crack kokaina hedatu zuten beltz auzoetan, eta aitzakia horren pean beltz drogazale gaizkilearen irudia eraiki. Auzoko edonor sartu zuten kartzelan, beltza izate hutsagatik susmagarria izan zitezkeen. Aldi berean, mugimenduko liderrak kartzelaratu zizkiguten. Mumia [Abu-Jamal] esaterako, oraindik presondegian dago. Eta Assata Shakurrek FBIren zereendako bilatuenean artean jarraitzen du. Memoria kolektibo horretatik sortu gara gu.

**2009. urtean Obama hautatu zuten presidente. 2017an berriz, Donald Trump. Zer gertatu da tarte horretan?**

Obama sinbolo baliagarria izan zen pertsona beltzontzat. Baina aldi berean, eragin kaltegarria izan zuen, jendeak erakundeetan delegatu zuelako beltz askapen prozesua. Horrexegatik, aldi berean, gure etsaia izan zen [Obama]. Egia esateko, ezer gutxi egin zuen beltz alde. Aurreko presidentek baino pertsona gehiago deportatu zuen, aurrekoek baino lehergai gehiago jaurti zuen drone bidez guda eremuko herrialdeetan; oso presidente bortitza izan zen.

Bestalde, Trump AEBetako neurri-neurriko ispilua baino ez da, egoki ordezkatzeko dituen jendarte arrazistaren baloreak. Okerrena zera da, karguan dagoenetik, pertsona arrazistak ahaldunduago sentitzen direla. Deabru guztiak ilunetik argira datoz orain. Biluzik dagoen enperadorea da Trump. Ezin dugu, inolaz ere, haren indarra gutxietsi. Jendarte politikatu egin da eta banaketa

burutegi bat ere bagenuen, eta bertan irakurri nituen Assata Shakur eta Malcolm X-ri buruzko biografiak. [Kwame] Nkrumah edota askatasunaren aldeko beste hainbat borrokalariren inguruan solastu ginen. Bertan erradikalizatu nintzen. Lehen haserre gisa bizi nuena, pentsamendu politiko bilakatu nuen. Ordura arte bakarrik jasan izan nuena, kolektiboki artikulatzen hasi nintzen kanpaldi hartan.

**Zein testuingurutan sortu zen *Black Lives Matter* mugimendua?**

Trayvor Martinen erailketaren erantzunak leherrarazi zuen egoera. Ohiko manifestaldiak eta protestak jada ez ziren nahikoa, jendeak haratago joan nahi baitzuen. Asanblada horietako batean, *Black Lives Matter* traola jaurti zen sarrera eta hortik aurrerakoa, jakina da. Egin ahala sortzen joan den mugimendua da gurea.

Noski, ez ginen ezerezetik sortu, ongi ondutako lurretik baizik. Pantera Beltzak dira gure erreferentzia nagusia. 1970. hamarkadako testuinguru hartan garaipen handiak izan zituen beltzen askapen mugimenduak. Geroztik ordea,



**TALLERES  
MITXELENA**  
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatu

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16  
info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

» “Estatuak ez gaitu babestuko, gure komunitateko sareen barruan autodefentsa sistemak eraiki behar ditugu”

» “Biluzik dagoen enperadorea da Trump”

handia eragin du. AEBei ispiluan begiratzeko unea iritsi zaie, genozidio baten ondorioz eraikitako herrialdea dela onartzeko garaia da. Egun, gure herrialdearen izenean munduan egiten diren sarraskiez ere hausnartu beharko da.

**Mundu mailan faxismoaren gorakada gertatzen ari den honetan, kalean beltzen aurkako erasoak ugaritzen ari direla sumatzen al duzue?**

Duela egun batzuk, 18 urteko neska bat autobusetik bota zuen gizon txuri batek San Frantziskon. Astero-astero tirokatzten dute gure jendea. Erasoak egunero ogi zaizkigu. Pertsona beltzok ez diogu Poliziari deitzen eraso bat edo lapurreta bat jasanez gero. Erasoaren biktima izan arren, sarri poliziek pertsona beltzari atxiki ohi dizkie karguak. Genero indarkeriarekin gauza bera gertatzen da; Polizia etorriagatik, erasotzaileak aske gelditu ohi dira eta biktimak berriz, babesgabe. Kontuan izanik Estatuak ez gaituela babestuko, gure komunitateko sareen barruan autodefentsa sistemak eraiki behar ditugu.

**Beltzen askapen prozesuak zer eragin du beltzak ez diren pertsonengan?**

Beltzont askatasunak pertsona oro askatuko du. Arrazismoaren aurka borroka egin nahi badugu, nahitaez, Afrika askatu behar dugu. Aldi berean, gure jendar-tean barne-lanketa handia egin beharra dago. Benetan sinetsi behar dugu ezin dela inor mendean hartu.

Beltzok bakarrik ez, nazioek edota zapal dutako edozein kolektibok daukate autodeterminazio eskubidea. “Black



*lives matter*” (Beltzont bizitzak axola du) oihukatzen hasi ginenean, jendeak egotzi zigun “All lives matter” (Bizitza guztiek axola dute) beharko lukeela. Leloaren harira sortu zen zalapartak argi erakutsi zuen zeinen beharrezkoa zen beltzont bizitzak erdigunean jartzea. Egun oraindik, beltzont bizitzak ez baitu balio bera.

**Nola antolatzen zarete?**

Lidergoa deszentralizatzen saiatzen ari gara. *Black Powers* mugimenduetan historikoki, liderrari eraso egitea nahikoa izan da mugimendua hiltzeko. Horrelakorik gerta ez dadin, bururen bati eraso eginez gero, berehalakoan lema hartuko

luketen askotariko gidaritzak sortzen ari gara.

Koordinakunde nazionala dugu, baina lurraldeetako taldeak autonomoak dira. Horrez gain, mugimenduaren barruan, emakumeak, queerak edota bestelako identitateak geure kabuz biltzen gara. Badago “White people for black lives” izeneko taldea ere. Arrazismoaren aurkako pertsona txuriek osatzen dute. Ezin dira gure asanblada orokorretara etorri, baina eurekin koordinatzen gara. Esaterako, manifestaldi batean tentsio momenturik egonez gero, Poliziaren aurrean jartzen dira. Pertsona txuriak lehen ilaran egonez gero, poliziek tentu handiagoz jokatzen baitute. ■

## Waran Kangeyan

# “Tamilek gogotik eusten diote hizkuntza transmisioari”

Waran Kangeyan (Brent, Londres, Erresuma Batua, 1991) udan izan zen Euskal Herrian. Gaztea da bera eta HIGA, Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen Topaketara etorri zen. Tamila da, baina ez da ez Sri Lankan ez Indian jaioa. Londrestik bidaiatu zuen Gasteiza hizkuntza gutxiagotuetan hitz egiten duten gazteak ezagutzeko asmoz.



**Miel A. Elustondo**

ARGAZKIA: ZALDI ERO

Tamil etniakoek Sri Lanka iparraldean bizi zuten arrazakeria eta diskriminazio egoerak beharturik, Europara egin zuen Kangeyanen aitaitak XX. mendearen erdialdera, eta haren urratsen ondotik heldu ziren, tantaka, Ingalaterrara gainerakoak. Han jaioa, ingelesez hazia da Kangeyan. “Gurasoek tamileraz hitz egiten zuten baina, guk, senideok, gaitasun hobia dugu ingelesez, tamileraz baino. Gero, hazitakoan, Indiara joan, zenbait hilabete Tamil Nadu eskualdean eman eta hainbestean jarri nintzen tamileraz hitz egiteko. Ez zen aise izan, hango ahoskera eta etxean aditu nuena diferentzietatik zitzazkidan. Egun, ulertzeko zailtasunik ez dut. Hizketan egin behar dudanean datozkit korapiloak”.

Sri Lankako iparraldean ez ezik, Indiako Tamil Nadu eskualdean ere indarrean da tamileraz, hindia eta ingelesez hizkuntza koofizialak diren herrialdean. Hortxe gatazka. “Tamilek beren hizkuntzari eutsi nahi diote. Indian, hasteko, hindia eta ingelesez dira bi hizkuntza ofizialak, baina tamilak ez hindiz ez ingelesez bizi dira. Gehiengoaren hizkuntzan



gabe, tamileraz bizi dira, eta tamileraz bizi nahi dute, hindiaren aldekoen presioei kontra eginez. Tamilek gogotik eusten diote belarunen arteko transmisioari, eskolan ere tamileraz egiten dituzte ikasketak... Hala ere, hizkuntza gutxitua da. Aski duzu polizia-etxera joan, laster esango dizute hitz egiteko hindiz edo ingelesez, ez hitz egiteko tamileraz”. Eta egoera ez da hobia Sri Lankan, tamil etniaren lurraldean. “Gure herria diskriminaturik bizi da, arrazakeria hor da oraindik. Tamileraz, berriz, hizkuntza gutxitua da, eta etorkizuna ere ez da garbi ageri. Tamil askok alde egin du Sri Lankatik...”.

Hedabideak ere badira tamileraz, nahiz muga handi bat duten: adierazpen askatasuna: “Esate baterako, tokiko prentsa da tamileraz, baina ez du gobernuaren kontra hitz egiterik. Ez da debaldeko kontua. Azken hamarkadetan hainbat kazetari hil dituzte. Prentsak hainbat eraso jaso ditu”. 1983tik 2009ra bitartean Sri Lankako gerra zibila da beti atzean, tamil herriaren burujabetasun gogoak. “Gure komunitateak botoa

eman nahi du, katalanek eta, behar bada, euskaldunek bezala. Ez du inoren mende bizi nahi. Ez zieten aukerarik eman. Eta biolentziaren bidea hartu zuen askok. Giro horretan, tamileraren liburutegia erre zuten, 19.700 liburu eta eskuizkribu galdu ziren, 2.000 urteko tradizio idatzia!”.

Ontzat eman zuen HIGA biltzarra. “Nire irudiko, eredugarria izan da, nazioarteko biltzarra nola antolatu behar den erakusteko balio izan du. Bat-bateko itzulpen zerbitzu eta gainerakoak. Oso interesgarria izan zait. Ikusi dut hizkuntza komunitate bakoitzak bere bidea egiten ari dela. Denek jasaten dute nola-halako zapalkuntza, eta kontrako hizkuntza politika bat”.

Euskarari buruz, berriz, Waran Kangeyanek dioena: “Eredu da hizkuntza berreskuratu nahi duten komunitateentzat, inspirazio iturri”.

Eta hor dabil, txapela buruan, munduan. “Non edo non Euskal Herriatik zabaldu da txapela batera eta bestera, hainbat idazle eta artistak erabili du, eta halaxe darabilt nik ere”. ■



# Nola atera armairutik 500.000 euskaldun?

Ondoko gonbidapena, agian, ez da zuretzat, irakurle. Hala ere, zer pentsatua emango dizulakoan eta ingurukoekin elkarbanatu dezakezulakoan ekarri dugu paperera. Imanol Epeldek ARGIAko 27 zapata bere blogean idatzitako proposamen zirikatzailea da.



**Imanol Epelde Pagola**

ARGAZKIA: DANI BLANCO



Euskaraz eta erdaraz dakigunak 750.000 lagun omen gara. Horietatik 40.000 lagun dira prentsa, liburuak eta diskoak euskaraz maiztasunez kontsumitzen dituztenak. Badira beste 33.000 lagun euskarazko prentsa irakurtzen dutenak, eta urtean, euskaraz bi liburu irakurtzen dituztenak. Eta beste 116.000 herritar inguruk euskarazko prentsa irakurri ez, eta gutxienez euskarazko liburu bat irakurtzen dute. Hiru multzoak batuta ez dira 200.000 lagunera iristen. Alegia, euskaldunen laurdenak dira, gehiago edo gutxiago, kultura euskaraz ere kontsumitzen dutenak. Eta galdetzen dut nik, denera 750.000 baldin bagara... Non arraio ezkututzen dira gainerako euskaldunen hiru laurdenak?

Alegia, non daude gainerako 500.000 euskaldunak? Kaixoooo hor zaudete? Noiz atera behar duzue armairutik?

Gaurko zapata pareta, beraz, 500.000 lagun horientzat. Euskaraz kontsumitzen hasteko, trantsizio gozo bat egin dezaten.

1. Urtean 2.500 liburu inguru argitaratzen dira euskaraz. 2.500! Euskaraz idazten den dena ez da kaka zaharra izango, ezta? Hartu ezazu liburu bat eta irakurri. Ohiturak lehenengo esaldia irakurtzen hastetik aldatzen dira.

2. Irakurri ezazu igande honetan ARGIA. Edo *Berria*. Besterik ez bada ere sartu zaitez haien webguneetara.

3. Zoaz euskarazko antzerki bat ikustera Eguberriak baino lehen. Jo

eta ma geratuko zara antzezle eta obren kalitateaz.

4. Programatu zure telebista berriz eta jarri ETB 1.

5. Instalatu ezazu Badok appa. Euskaraz sortzen den musikaren berri izan dezazun. Ez zaitezten kexatu gaurko gazteek ez dakitelako zein den Mikel Laboa. Ezagutzen duzu Txuma Murugarren? Eta Paxkal Irigoyen? Joan zara haien kontzerturen batera?

Bistan da. Asko eta hobeto egin dezakete instituzioek eta euskarazko kultur produkzioak. Baina aizue, milioi erdi euskaldun! Ez baduzue letra bakar bat ere jartzen zuen partetik, nekez osatuko dugu esaldi bat elkarrekin. ■



# Euskarabildua jardunaldiak

# Demokrazia

# eta teknologia

# burujabetza

Urriaren 25ean Donostiako San Telmo Museoan Euskarabildua jardunaldien zazpigarren edizioa egin dute lametzak eta Ametzagaiña taldeak. Gobernu Irekietarako teknologiei buruz aritu dira hizlariak: software askea, teknologia burujabetza, parte-hartzea, *open data* eta gardentasuna. Herritarren eta erakunde publikoen arteko harremani buruz, azken batean.



Xalba Ramirez  
@xalbaram

Hitzek, maiz, erabiliaren erabiliaz zentzua galtzen dute, edo behinik behin, eraldatu egiten dira. *Demokrazia* hitza ezin da berdin ulertu Brasilgo hauteskundeak irabazi berri dituen Bolsonaroren edo herrialde horretako Lurrik Gabeko Langileen Mugimendu MSTren ahotan, adibidez. Antzekoa gertatzen da Gobernu Irekia, gardentasuna edo parte hartzea bezalako hitzekin. Batzuetan, badirudi erakunde batek izan dezakeen 426 milioi euroko aurrekontutik, herritarrek hainbat proiekturen artean bi milioi euro non gastatuko diren aukeratzeko, parte-hartzea bermatzen duela. Baina hala al da?

Euskarabildua jardunaldian arreta jarri zaio hitzetik harago dagoen praktikari: nola harremantzen dira erakunde publikoak eta herritarrak? Zein paper du teknologia harreman honetan?

Gobernu Irekia software askearen mugimenduaren filosofiatik abiatuta sortutako ikuspegi politikoa da. Kon-

tzeptua 70eko hamarkadaren amaieran sortu zuten Ingalaterran. Gobernuaren sekretismoaren aurrean, irekitzea eta herritarren parte-hartzea ziren helburu nagusiak.

AEBetako presidente ohi Barack Obamaren gobernuak 2009an egindako *Open Government* memoranduma aurkeztu zuenean Mendebalde osoan jarri zen bogan gai eta kontzeptu hau. 2011ko plazen okupazio mugimenduek kontzeptuari bultzada eman zioten, eta instituzioei kritika sakona egin zien, Espainiako Estatuan adibidez, ordura arte zegoen kontsentsua hautsi zen "ez gaituzte ordezkatzen" leloarekin.

## Gardentasuna, lankidetzeta eta parte-hartzea

Gobernu gardenak erakundearen kontu-ematea bermatzen du herritarren aurrean, egiten ari denaren eta bere asmoen informazioa ematearekin batera. Gaietan adituek diotenez, edozein admi-



nistrazio publikok, modu simple eta argian, informazio publiko horretarako sarbidea bermatu behar luke, modu honetan herritarrek gobernuaren jarduna kontrola dezaten.

Gobernu kolaboratiboak lortu behar du herritarrak eta bestelako eragileak erakundearen lanean inplikatu eta konprometitzea. Elkarlanak herritarrekin zein enpresa, elkarte eta bestelako eragileekin kooperazioa dakar alde batetik, baina baita bere funtzionario eta bestelako administrazioekiko harremana ere.

Azkenik, gobernu parte-hartzaile baten, alde batetik, herritarrek politika publikoen sorrerak aktiboki parte hartzeko eskubideari ematen dio bide, eta beste-rik, erakunde herritarren ezagutza eta esperientziatik elikatzera gonbidatzen du. Beraz, herritarrek gai publikoetan duten inplikazioa eta protagonismoa handitzeko jardunak sustatzen ditu, era honetan indar politikoak herritarrekin indar handiagoz konprometiz.



Hirikilabs-eko Ibai Zabaletak hainbat egitasmoren berri eman zuen. Besteak beste Airbnb-ren efektua aztertzeko antolatu zuten tailerra aurkeztu zuen. EUSKARABILDUA

Hiru zutabeak elkarrekin lantzea da arrakastaren gakoa. Gardentasun atariak edo parte hartze prozesuak ez daitezzen partzialak izan eta utopismo digitalean eror ez gaitezzen: demokraziak, agian internetek eskaini ditzakeenak baina denbora, mimo eta presentzia handiagoa eskatzen duelako. Zentzu horretan gaian adituek diote, erakunde publikoek ez luketela nahasi behar parte-hartzea eta klik egiteko aukera azkarra.

Eñaut Gracia Errenteriako Udaleko Informazio Gizarte, Informatika eta Parte Hartze zinegotzia izan da administrazio barneko dinamiketan zorrotzen begiratu duen hizlaria, edozein aldaketa aurrera eramateko oztopo izan daitezkeela gaineratuz. Zentzu horretan udalako sailen artean dagoen borroka, *Game of Thrones* telesailarekin pareka-

tza iritsi da: “Jarrera pertsonalen eta instituzioetako harremanen aurka ari garelako dira zailak aldatetako. IKTek horretan lagun dezakete, zailtasun horien aurrean palanka eginez”.

Aragoiko Gobernuko Partaidetza, Gardentasuna, Lankidetzeta eta Boluntaritzaren arloko zuzendari Raul Olivane, LAAAB Berrikuntza Demokratikorako

» **MIREN GUTIERREZ**  
**“Jendea hackerren beldur da, ni askoz gehiago kezkatzen nau AEBetako Gobernuak”**

Laborategia aurkeztu du Euskarabilduan. Olivane ere azpimarratu du demokraziak berritzen eta zaintzen ez bada, arriskuan egon daitezkeela.

*Design Thinking* metodologietan oinarritzen dira herritarrak ko-sorkuntzan inplikatzeko: “Administrazioaren gaur egungo erronka nagusia diseinua da, ez marken diseinua, baizik eta zerbitzuen diseinua”.

Hego Amerikako hainbat ikertzaileekin batera egindako *Hacking inside* liburua argitaratzeaz daudela aurreratu du Olivane: nola sartu erakundeetara birus troiar baten moduan, eta nola hackeatu barrutik.

### Teknologia burujabetzaz

Software askeaz gain, teknologia askeak landu behar direla aldarrikatu zuen Xabier Barandiaran EHUKo irakasleak, Bartzelonako Udalerako garatutako Decidim.org plataforma eredu jarrita.

Software askea, hainbat printzipioetan oinarritzen da: teknologia eskuratu ondoren erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu egin daitezke. Teknologia burujabetza ordea, ez da lan egiteko modu batez ari, ezta lizentziez ere: geroz eta enpresa pribatu gutxiagok duten kontrol erraldoitik ihes egitea da kontua.

2006an Microsoft zen munduko enpresa handien artean zegoen enpresa teknologiko bakarra. Gaur munduko lehen bost enpresak dira teknologikoak: Apple, Alphabet, Microsoft, Amazon eta Facebook.

Silicon Valley-en nagusi den ideologiaren arabera, enpresa teknologikoetako langileek “mundua hobetu” nahi dute –dirua egiteaz gain–. “Horren atzean ongizate estatuak ordezkatzeko estrategia bat dago, zerbitzuak Google bidez eskura ditzagun. Turismo bulegoak laster desagertuko dira, *Google Maps* eta *Trip Advisor*-ekin nahikoa dugulako”. Jakina da, Maquiaveloren garaitik –eta kartografia garatu zenetik– mapak lurraldeak konkistatzeko edo kontrolatzeko sortu zirela. “Munduko maparik handienaren jabea Google da”, gogorarazi zuen Barandiaranek.

“Kapitalismo teknologiko honek larritu beharko gintuzke”, Barandiaranen ustez, bereziki erakunde publikoek airtzeko orduan. “Alternatiba badago, eta hobe da: mundu osoan elkarlanean ariko diren herritarren teknologia libre”.



Armel, Le Coz & Cyril Laga-en Gobernu Irekiaren diagrama. CC lizentziarekin argitaratua. Euskarara itzulpena: IANETZA INTERAKTIBOA.

### Informazio gaindositia eta datuak

Datu irekien sozializazioari buruz hitz egin zuten Open Data Euskadiko arduradun tekniko Imanol Argüesok, Deustuko Unibertsitateko irakasle Miren Gutierrezek eta Hirikilabs-eko programa koordinatzaile Ibai Zabaletak.

Miren Gutierrezek baleontzien ibilbide datuak jasotako hainbat bisualizazio erakutsi zituen: “Datuen bisualizazioari esker informazioa era antolatuan aurkez daiteke, ulergarri eginaz bestela milaka zenbaki baino ez direnak”. Datuak eskuratzeko moduez aritu da eta datuen publikotasuna defendatu du, herritarren anonimata arriskuan jartzen ez den kasuetan, behintzat. Horrez gain, datuen gaineko akzio demokratikoa- ren alde agertu da, datu publikoak eta irekiak sortzeko prozesuan bertan parte-hartzearen garrantzia azpimarratuz.

Ibai Zabaletak Hirikilabs-en hainbat egitasmoren berri eman eta besteak beste Airbnb-ren efektua aztertze- ko antolatu zuten tailerra aurkeztu zuen. Lan hori egiteko datuak *web scraping* bidez eskuratu zituzten, hau da, webgunee- tako informazio publikoa erauziz. Zabaletak adierazi zuen ezin izan zutela frogatu Airbnb-ren zabalkundeak hiriko alokairuen prezioan eragin zuzena izan

zuenik, izan ere, datuak ezin izan zituztelako alokairuen prezioekin erkatu.

Honelako esperientziak garbi erakusten dute ez dela nahikoa datu publikoak izatea, baizik eta horiek landu egin behar direla eta garrantzitsuagoa dena, datuak elkarren artean konparatzeko eta erkatzeko aukera egon behar dela, edozein irakurketa oso egin ahal izateko.

Datuak eta informazioa edukitzea, bosterea izatea da. Egun, ordea, inoiz baina datu gehiago sortzen ari gara, batez ere, geolokalizazio eta komunikazio digita- laren ondorioz. Datuen negozioaz gain, pribatutasuna erronka nagusi bihurtzen ari da: “Jendea hackerren beldur da –dio Gutierrezek–, baina ni askoz gehiago kezkatzen nau AEBetako gobernuak”.

### Librea da euskal softwarearen territorio bakarra

*iAnire* izeneko euskarazko testuak irakurtzeko gai den fikziozko pertso- naia teknologikoa aurkeztu zuen Xa- bier Barandiaranek. Estrategikoki egin beharreko apustua burujabetza tekno- logikoaren bidetik egin behar dela azpi- marratu zuen. “Horren aldean beste ir- tenbidea *Siri*, *Alexa* edo *Google Assistant* euskaratzea da eta hori ez da batere

ona burujabetzarako”. Marko Txopiteak ideia honetan sakondu zuen, hizkuntza teknologien alorrean euskaraz dauden eta libreak diren proiektuak aurkeztuz jardunaldietan.

Merkatuaren zain egongo balitz euskaraz hitz egingo duen teknolo- gia, garapena ez dela inoiz gertatuko ziurtatu zuen Txopiteak. “Euskaldu- nok teknologia hauek nahi baditugu, guk geuk, modu librean eta auzolanean sortu behar ditugu”. Ahots errekonozimendurako teknologia librea osatzea helburu duen *Common Voice* Mozillaren proiektua aurkeztu zuen. Egitasmo hori 73 hizkuntzatan dago martxan eta Librezele euskarazko moldaketak pres- tatzen ari da. Une honetan jendearen parte-hartzea eskatzen ari dira, euska- razko audio grabaketa publikoen corpus erraldoia osatu ahal izateko.

Euskarak teknologia aurreratuetan lekua izango badu, eta Euskal Herrian eredu demokratiko, garden eta par- te-hartzaileak sustatu nahi baditugu, software eta teknologia burujabetzan urratsak ematea ezinbestekoa izango dela argi geratu zen jardunaldiotako hizlariak entzunez. Besteen esku dau- den jakintzen menpe geratuko da kom- unitatea bestela. ■



# EUSKARALDIA DONOSTIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra



Eman izena irailaren 20tik aurrera  
[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

# Mendiak eta basoak



**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibartztea.eus](mailto:jakoba@bizibartztea.eus)

Insignis pinuari eraso dioten onddoek hankaz gora jarri dute Bizkaiko eta Gipuzkoako basogintza. Azken ia mende batean gorabehera handirik gabe moldatu den basogintza osoa kolokan jarri dute onddo xixtrin batzuek. Xixtrin baino gehiago, ziztrin esan beharko dugu, izan ere, a zer dantza piztu eta puztu duen: basozaleak, teknikariak, administrazioak, basozainak, ingurumenzaleak, muintegiak, egurzaleak, paper fabrikak, altzarigileak...

Geurea bezalako herri batean basogintza politikak estrategikoa izan beharko luke. Ehundaka urtean hala izan da. Euskal Herriaren bilakaera ekonomikoaren oinarri-oinarrian izan da basoa: itsasontziak egiteko, eraikuntzarako, su egurretarako, ikatzetarako, larreeta-

rako eta bazkatarako, elikadurarako, lanabesetarako, saskigintzarako, burdingintzarako, inaurkintetarako, ur hornidurarako, ehizerako eta abar luze baterako. Basoaren kudeaketa oso epe luzerako estrategietan ehuntzen zen. Maila guztietako administrazioek eta elkarteek basogintzaren atal eta alorrak arautzen eta zaintzen zituzten. Zorrotz asko! Baldinbaitere, jendarte osoaren bizimodua mendiaren emanean funtsatua zen eta. Izan ere, mendia ez baitzen soilik basoa. Jendartearen behar horiek guztiak asetzeko, basoarenaz harago mendiari buruzko ikuspegi global eta borobilago bat zuten. Denek. Horrek liskar ugari sortu izan du. Ikazkinak, artzainak eta ganaduzaleak, ontzigileak, nekazariak, administrazioak eta abar bakoitzaren etekinen onurarako borrokalea izan da mendia, mendea joan mendea etorri. Mendiaren aprobetxamenduaren gaineko auziak jasotzen dituzten dokumentuz gainezka ditugu

agiritegiak. Denak mendiari tiraka, jectzi eta bildu! Horrexegatik, udalek herri ondare garrantzitsuena bezala zaintzen zituzten mendiak, herri-mendiak. XIX. mendeko pobrezia eta gerrateen ondorioz herri-lurrak saldu beharrean izan ziren alkate eta zinegotzi haien etsipena eta tristura irudikatzea ez zait batere zaila egiten. Mendeetako ondarerik garrantzitsuena.

Petrolioak azaldu zen arte. Petrolioak, bultza eta bultza, ekonomiaren, eta, hortaz, jendartearen ipularrera eramandu mendia. Mendia eta basoa. Eta onddo ziztrin batzuek ireki dizkigute begiak. Epaitegietako agiritara ez dardila iritsi, baina gaur egun ere etorkizun oparoa nahi badugu, den-denok elkarrekin aritu beste aukerarik ez zaitzugu geratzen. Liskar, auzi, etsipen, tristura eta abarrekoak alde batera utzi eta biharko mendia sortzeari ekin. Izan ere, mendea joan eta mendea etorri, XXI.ean gaude! ■

## Jakoba Errekondori GALDERA

**Kaixo Jakoba**

**Mugurdiak, martxukak, ahabiak, andere mahatsak... oso modan jarri zaizkigu eta nire galdera da ea nola moldatzen diren gure lurretan edo aproposak diren, ekoizpen serioa egiteko moduan. Eskerrik asko. (Joseba)**

Fruitu txikiak deitzen diren horiek gero eta gehiago ikusiko ditugu. Elikadura osasuntsua sustatzen dute, agi danean, eta negozio biribila dira itxuraz. Ez dut ezagutzen horien ekoizpenera erabat jarritako nekazaririk. Landare horiekin bereziki lanean ari den mintegi bat behintzat bada Zarautzen. Urduñan ere bada marmeladagintza lantzen duen baserri bat. Horiekin hitz egin behar...

# Nafarroa lantzen ari den Foru Dekretu berria, abeltzain txikiertzat kalte



**Garazi Zabaleta**  
@tirikitran

Urtebete inguru daramate Nafarroan abeltzaintza arautzen duen Foru Dekretu berria lantzen. Baina zenbait abeltzain kritiko agertu da dekretu berriak bultzatzen duen abeltzaintza ereduarekin: "Foru Dekretuaren proiektua aberekoizpen intentsibo eta industrialean oinarrituz egin da, honen garrantzia ekonomikoa soilik baloratuz", salatu zuten urriaren 23an Iruñeko Katakarak liburu-dendan emandako prentsurrekoan. Nafarroako Arartekoan aurkeztu dute 27 abeltzainek eta 9 alkatek sinatutako idatzia.

## Komunalen galera

Atez bailarako Ezekiel Martin, Baztango Joseba Otondo eta Leitzako Mikel Zabaleta alkateek hartu zuten hitza Katakra-keko agerraldian. Gobernua lantzen ari den dekretuarekin beraien eskualdeetan nagusi den abeltzaintza eredu estentsiboaren baloreak guztiz baztertzen direla salatu zuten alkateek. "Produktuen kalitatea, animalien ongizatea,

ekosistemen oreka, hazien banatzea, suteen aurreko prebentzioa edo lurraldeak maila ekonomiko, sozial eta ingurumenean mantentzea" ahalbidetzen duen abeltzaintza eredu, hain zuzen.

Foru Dekretu berrian animalien ongizatea baldintzen artean dago, esaterako, ustiategi bakoitzak mahuka propioa edukitzea. "Abereak lur komunalean daudenean, abereentzat mahuka eta aska kolektiboak daudenean, zergatik erosi beharko du bakoitzak berea?", galdetzen dute abeltzainek. Zentzu berean doan neurria da abere ustiategi desberdinen arteko jardun bateratua debekatzen duena ere: "Abeltzaintza tradizionalen animaliak lur komunalean egoten dira sarri, eta jabe desberdinen animaliek eta espezie desberdinetakoek bordak, askak eta abar partekatzen dituzte", diote.

## Bi ereduaren arteko bereizketa egitea eskari

Bolumenaren arabera ustiategiak sailkatzeko erabiltzen diren neurriak ere

desegokiak direla diote idatziaren sinatzaileek. Esne ardiaren egungo sailkapena, esaterako, hiru taldetan egiten da: txikia (1.000 arditaraino), ertaina (1.000-2.000 ardi) eta handia (2.000 ardi baino gehiago). Egungo errealitatea kontuan hartuta sailkapen zabalagoa egin behar litzateke sinatzaileen ustez, etxeko ekoizpenak, txikiak, ertainak, handiak, super handiak eta makroak ezberdintuz.

Zein da administrazioari landa eremuko abeltzain eta alkate hauek egiten dioten eskaera? Eredua intentsibo industrialaren eta tradizional estentsiboaren arteko bereizketa argia egiten duen dekretua idaztea, eskualde eta egoera bakoitzeko berezitasunetara eta antolamendura egokitu dena. Zeren eta bestela, ondorioak ez dira oso positiboak izanen haien ustez: gazteek sektorean leku egiteko arazoak, ustiategiaren transmisioaren zailtasunak, lur komunalak kudeatzeko problemak... ■

# azoka

**NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN:** Sartu argia.eu/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

**ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK:** ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eu/azoka · t @argiaAzoka

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

**87**  
salgai

## Gasteizko gaztetxeak 30 urte

Sentimendu Gaztetxeroa. Horixe usainduko duzu orriotako gertakizun eta borroketan. Bere argi-itzaletatik, orainaldian eta etorkizunari begira borrokan jarraitzeko ilusioen, sentsibilitateen, moduen eta arrazoiaren kontrabandorako erreminta bezala ulertua.

**Ezaugarriak:** 376 orri koloretan, argazki eta marrazkiz hornituta.

**Egilea:** Gasteizko Gaztetxea.



**12 euro**

**34**  
gai  
musutruk

Azaroaren 15ean, 10:00etan...

**ARGIA Jendearentzat musutruk** jarriko ditugu [argia.eu/azoka](http://argia.eu/azoka) webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!



**Bizi Baratzea lamina 33 eta 34**

Mattinek eta Ainara Azpiazu Axpik eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



**Bilboko Kafe Antzokian otordua**

Bi lagunentzako bazkari aparta giro onean.



## ARGIAREN AZOKA

## Ni ez naiz tuntuna!



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

Turroiak ikusi ditut duela pare bat aste herriko dendan. Gogorra, biguna, txokolatezkoa, mazapana... "Dagoeneko Gabonei begira?" pentsatu dut, baina gero oroitu naiz badirela pare bat aste lagun batek esan zidala ondoko herrian hasiak direla Gabonetako argiak jartzeko pres-taketa-lanetan. "Abenduaren 1erako piztuta egon behar omen dute aurten! Datorren udaberriko hauteskundeek ere izango dute akaso zerikusia", bota dit barre txikiarekin.

Hasiak izango dira honezkero telebistan ikusten diren kolore eta mota guztietako jostailuen iragarkiak. Garai batean buruz ikasten genituen Olentzeroren etorrerarako, eta lata pixka bat eman ere bai etxean. Baina ez zen horrelako jostailu askorik sartzen gure tximikian behera, eta ez oparirik jasotzen ez genuelako; baina bai, igual, beste modu bateko erregaliak. Eta haur-nerabe nintzela ulertzen ez banuen ere, orain eskertzen diet etxekoei.

Futbol-talde kuttunaren elastikoa nahi nuen, berri-berria, hastear zen denboraldikoa. Olentzerok ez zidan hori ekarri, baina bai lagun batek jada erabiltzen ez zuen nire ekipoaren kamiseta. Gaztetxean urtero abendu aldera anto-

latzen zen truke-azokan eskuratutako jertse bat iritsi zitzaidan beste behin.

Ez dut sekula Gabonetatik guztiz deskonektatu. Egia da. Eta horrek berak pizten du gatazka txiki bat nire barruan. Baina Gabonak pasa, bizi edo ospatzeko moduak eta moduak ere badaude. ARGIAk proposamen bat egin du data horietan kontsumoaren zurrunbilotik ihes egiteko. Oharra horrela bukatzen da: "Opari bat eman edo jasotzeko derrigor erosi beharrik ez dagoelako".

Aukera paregabea dugu ganbarak edo armairuak husteko, erabiltzen ez ditugun jostailu, gailu edo arropak beste norbaitek erabil ditzan eskuragarri jartzeko. Oso erraza da: atera argazkia emango duzun gailuari; sartu ARGIAren Azoka estekan; di-da batean betetzeko modukoa den formularioa osatu (gogoratu, gaiak gero eta xehetasun gehiago eman, neurriak eta abar, eros edo harlearentzat errazagoa izango da); erabaki salgai jarri nahi duzun ala komunitateari eman nahi diozun; eta egin publiko. Zintzilikatu duzun gaia norbait interesatuko balitz zaidu email-a iritsiko zaizu, eta hortik aurrera egingo duzue tratua non entregatu, nora bidali...

Ez izan tuntuna! ■

 Sarean arrantzatua

## Eneko Oroz #oficialidá

@ameslaria

Kontua da euskarazko ikusentzunezkoen produkzioa txikia denez, igual gai baten inguruan doku bat (edo bi) egin direla, eta zu dokua tratatzen duen gaiarekiko gertukoa bazara, baina beste garai batean jaio bazara, ba igual ez duzu inoiz ezagutuko.

... [Txio hari osoa da irakurtzeko modukoa]

Bide hortan asko eskertu behar zaio ARGIAri. Ze hau pasote totala da.

[argia.eus-eko Multimedia kanaliz ari da]

## ARGIAren egutegia saltzea, kolektiboentzat diru-iturri

ARGIAren egutegia salgai da dagoeneko. Nahi al duzu berau saltzen parte hartu? 10 egutegitik gora saltzen duten kolektiboek salmentaren %10 eskuratuko dute, eta 25 egutegitik gora saltzen dutenek %20 (9 euro da egutegi bakoitzaren prezioa). Interesa duenak idatzi marrieta@argia.eus helbidera edo deitu ARGIAra: (0034) 943 37 15 45.



## Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak

Bidali oirureta@argia.eus helbidera alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoa, irratia, internet, prentsa, sustapen ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrrendara sartzen ditugu.

# LEZO URREIZTIETAK EGIN EZ ZUENA



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Santurtzi, 1907ko urriaren 16a. Lezo Urreiztieta Rekalde kontrabandista, mugalaria eta Jagi-Jagi nahiz ELAko kidea jaio zen. Txikitatik, aitaren itsasontzia izan zuen eskola eta hamar urte betetzerako kontrabandoan ari zen. 1981ean hil zen Baionan eta bere bizitzan egindakoak sinestezinak dira, literalki. Berriki, Josu Martinezek Donostiako Zinemaldian estreinatutako *Jainkoak ez dit barkatzen* dokumentalean jaso du Urreiztietak egindakoak eta, zuzendariak berak aitortu duenez, muntatzaileak galdetu omen zion ea editatzen ari zen hura dokumental faltsua ote zen.

1934ko Urriko Iraultzan parte hartu zuten 826 pertsona atera zituen Asturiastik, Ipar Euskal Herriko kostaldean salbu utzita. 1948an ere Asturiastik atera zuen maki talde bat eta Bordelera eramana. Tartean, Urreiztietak ehunka eta ehunka lagun salbatu zituen. 1936ko Gerran, frankistek Bilboko portuan ezarritako blokeo estua 14 aldiz gainditzea lortu zuen. 1936ko irailaren 24an soilik, 60.000 fusil eta 60.000.000 kartutxo eta esku-bonba sartu zituen. Bigarren Mundu Gerran ere arma kontrabandoan ari zuen, nagusiki estatubatuarrentzat.

Hauek guztiak 1975 eta 1978 urteen artean izandako hainbat elkarrizketetan kontatu zizkion Urreiztietak Martin Ugalderei. Guztira, 35 ordu inguru gra-



SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA

Lezo Urreiztieta (eskuinean) Luis Arana Goiri lagunarekin batera Parisko aerodromo batean, 1938an.

batu eta gorde zituen kasetetan eta hori izan da Josu Martinezen dokumentalaren oinarria. Baina Urreiztietak kontatutako abentura eta balentria guztiak, harrigarriak izanik ere, bestelako iturriek baieztatzen dituzte.

Hala ere, ez zuen nahi zuen guztia lortu; bi proiektu bete gabe utzi zituen. Bata Franco hiltzea izan zen. Indalecio Prieto buruzagi sozialista eta lagun minaren babesean, Madrilan egon zen diktadorearen atzetik, baina Donostiako udaldiak egokiagoak iruditu zitzaizkion proiektua gauzatzeko. Aieteko jauregia helikopteroz bonbardatzea ere pentsatu zuen, baina azkenean jauregi azpiko tunel bat lehergaiz betetzeko plana jarriko

zuen abian. Plana bertan behera geratu zen 1962an, Prieto hil zenean.

Bestalde, 1950eko hamarkadan Urreiztietak Euskal Herria aske izateko itxaropen gutxi zuen. Euskaldunak tokiz aldatu eta beste nonbait *Euzkadi Berrria* sortzea bururatu zitzaion. Mexikoko Guadalupe uhartea horretarako toki aproposa iruditu zitzaion: bertan ez zen inor bizi eta, gainera, uharteak Euskal Herriko kostaldeak adina kilometro zituen, gutxi gorabehera. Irlaren mapa bat marraztu eta bertan euskal hiriak kokatu zituen. XX. mendeko pirata bizkaitarra Lázaro Cárdenas Mexikoko presidentearekin bildu zen proiektua abian jartzeko, baina ez zuen aurrera egin. ■



RAWITO

## Txokolatea uste baino 1.500 urte zaharragoa da

Ekuador hegoaldeko Santa Ana-La Florida aztarnategian, kakaoaren kontsumo aztarnak topatu eta duela 5.300 urtetan datatu ditu hainbat unibertsitateko ikerlari talde batek, *Nature Ecology & Evolution* aldizkarian jakinarazi dutenez.

Orain arte kakao kontsumoaren arrastorik zaharrenak Erdialdeko Amerikan

topatu dira eta K.a. 1.900 urte ingurukoak dira. Aurkikuntza honi esker mi-lurte eta erdi aurreratu da txokolatearen historia eta jatorria hegoalderago zegoela ondorioztatu dute, Amazonas ibaiaren goi ibilguan. Zalantzan dago, ordea, ordurako kakao landareak etxekotuta ziztuzten edo basa landareetatik bildutako aleak kontsumitzen ziztuzten. ■

**2018KO GRIPEAREN AURKAKO  
TXERTAKETA KANPAINA**

*Arrisku-taldeei edo 65 urtetik  
gorakoei zuzendua.*

**URRIAREN 24TIK AURRERA**

**GRIPCE**  
**ZER GRIPCE?**



**JARRI TXERTOIA**



**Osakidetza**

**30  
URTE**

**GRIPEAREN  
AURKAKO  
TXERTOAK  
JARTZEN**



## Xabier Gantzarain

# “Gaur egun berdina balio du katu baten bideoak eta Munchen artelan batek”

Idazlea eta arte kritikoa da, baina guztiaren aurretik, behatzailea. Ikusten duen horri irakurketa propio bat gaineratzen dion behatzaile fina. Artelanari ertzak adina erreferentzia ateratzeko gai dena, eta obrari beste begirada bat emango diona. *Zuloa* saiakera liburuan euskal arte garaikideko 23 obra aztertu ditu, eta haietatik abiatuta gogoeta berriak plazaratu.



**Gorka Erostarbe**

@gerostarbe1

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Astelehen goiza da; lasaitasun erabatekoa sumatzen da Oteizaren Frontoietan. Ez dago inor pasieran, ez dago ikuslerik. Haurrik ere ez pilotan jokutzen. Xabier Gantzarainentzat (Azkoitia, 1975), bere herrian kokaturiko obra eskultoriko erraldoia Jorge Oteizaren azken garaiko noraezaren erakusle da: “Ez dago argi Oteiza beraren proiektua ote zen, edo haren ideia batetik abiatuta beste batzuek egindako kontu bat. 90eko hamarkadan asko ugaldtu ziren Oteizaren obrak hainbat herritan, udalek egindako eskariak ametituz. Bere figura erabiltzen zuten herriari beste oihartzun bat emateko. Hala ere, bada esaten duenik noraeza hori ez zela hain inkontzientea ere, nahita egin zuela hura guztia jendea nahasteko-edo. Angel Bados artistari entzun izan diot halakorik”. Nolanahi den, XX. mendeko figura handiena da Oteiza euskal artean Gantzarainentzat. Eta Oteizaren aipamenak zein izpiritua ere lehen kapitulutik azaltzen dira bere *Zuloa* (Elkar) saiakera liburuan.

Tene Mujika bekaren laguntzaz idatzitako liburu horretan 23 saio labur bildu ditu, bakoitza artelan batetik abiatuta idatzia, testuingurua erakutsiz, bizitzare-

kin lotuz, memoriarekin erkaketak egin. Guztiek dute lotura bat, azken mende laurdeneko obrak izatea: Ibon Aranberri, Txomin Badiola, Asier Mendizabal, Itziar Okariz, Saioa Olmo, Bixente Ameztoui, Jose Luis Zumeta, Jose Ramon Amondarain... Gantzarainen asmoa izan da arteari buruzko testu estandarren ohiko abstrakzio eta epelkeriatik ateratzea. “Ezer ez da neutroa. Ezta testu deskriptibo hutsal samar horiek ere. Hitz joko tonto bat eginez ni saiatu naiz jarrera horretan zulo bat egiten, “nik beste era batera nahi dizut azaldu artelan hau” esateko.

**Ibon Aranberriren *Zuloa* obrari eskainitako testuarekin hasten duzu liburua, eta diozu: “Ibon Aranberri hil zuen Oteiza”. Baina hil al da liburuan aipatzen duzun “euskal jatorri jatorren mitoa”?**

Ez dut uste, jatorriaren mitoa asko gustatzen baitzaigu. Zerbait heldu egin behar zaio, eta beti agertzen da euskal jatorri jatorren mitoa, gure imaginarioan oso errekorretea dena: arbasoaren figura hori, kultura milenaria, Europako hizkuntzarik zaharrena, eta hori guztia asko gustatzen zaigu, eta behin eta berriz agertzen da. Liburuan nabarmendu nahi nuen

Ibon Aranberri eta bere belaunaldiak beste garai baten berri eman nahi izan dutela, eta horretarako egin zuten Oteizaren belaunaldia, nolabait, hil. Zehaztu nahi dut Oteiza hil zutela, bai, baina bizirik mantentzeko. Egin zuten aurreko tradizioaren irakurketa bat, eten bat planteatuz, baina eten hori planteatzen da baita *continuum* bat marrazteko ere.

**Zuk liburuan landutako belaunaldi honi falta zaio aurreko hark gizar-tean izan zuen gorpuztea?**

Hor dago nire liburuaren abiapuntuetako bat. Txillida, Oteiza, Basterretxea, Zumeta, Mendiburu, Balerdi... Uste dugu gorpuztuta daudela, baina benetan gorpuztuta al daude gizar-tean? Edo ideia moduko bat da hor geratu zaiguna txertatuta. Ez nago oso seguru, eta gehiago txertatu badira, ziur aski da garai hartan gehiago *erabili* zirelako artea ez zen esparruetan. Adibide bat: topatu nuen egutegi bat, 1976koa, aurrezki kuxaren batek ateratakoa, eta hila bakoitzean artista baten obra ikus zitekeen. Zuk hori sukaldean daukazu,



etxean. Eta 1976an ez daukazu Internetik, ez daukazu ia telebistarik... Erreferentziak askoz gutxiago zirenean, horiek askoz ere presenteago zeuden. Eta, gainera, haien lanak erabili izan dira Kutzaren logotipoa egiteko, Euskal Herriko Unibertsitatearen logotipoa egiteko... Eta ohitu egin gara horiek ikusten. Gainera, Asier Mendizabalek ondo esplikatzeko duen bezala, 60ko hamarkadako berpizte sozial kolektibo baten ideia lotu diegu obra horiei: Francoren diktaduraren kontra sortu zen herri mugimendu berri baten aldekoak ziren. Aldiz, oraingo artistekin gertatzen da informazio ozeanoa izugarri zabala dela eta ozeano hori irudiz beteta baldin badago, artista horien lana agertzen dela izkina txiki batean.

**Pasarteetako batean diozu: "Ikusle aktibo bati egiten dio artistak galde; akaso gehiegixto eskatzea da, ikuslerik ere ez dagoen garaiotan". Zergatik ez dago ia ikuslerik?**

Boris Groysek esplikatzeko du *La société du spectacle* (Espektakuluaren gizartea) idatzi zuen Guy Debord filosofoa zela azken ikuslea, eta hark bere buruaz beste egin zuela: azken ikusleak bere buruaz beste egin bazuen, gaur non daude ikusleak? Hain urrunera joan gabe ere, egun ikusten dena da denok ari garela gauzak sortzen, argazkiak egiten, idazten... eta gainera, uneoro sarera igotzen. Galdera da: hainbeste jende baldin bagaude denbora guztian idazten, argazkiak ateratzen... ikusten zein dago? Non dago ikuslea? Ikuslerik ba al dago? Molde batera edo bestera, azken urteotan jende askok egin duen galdera da.

**Horrek ekarri al du, neurri batean, arte garai-kidearen eta gizartearen arteko urruntzea?**

Ez dakit. Nik ulertzen dut esatea urruntze bat dagoela artearen eta gizartearen artean. Baina ez dakit erabat ados nagoen, ze horrela esanda ematen du duela 50 edo 60 urte ez zegoela urruntzerik, eta uste dut hori ere ez dela horrela. Guk aipatzen dugu Arantzazu, eta ematen du gauza bat erabat onartua, babestua, eta gizarteak beretzat hartua izan zela, baina momentu hartan ez zen hala izan, eta jende askorentzat gauza monstruoso bat izango zen.

**Eta egun zer nolako urruntzea dago?**

Ez dakit oso ondo. Batetik, ikusleak urritu egin dira, denok gara sortzaile, denok ari gara sortzen etengabe, eta beraz, ikuslerik edo hartzailerik ez dago, ez behintzat lehen egon zitekeen moduko hartzaile bat. Orain denbora gutxiago daukagu, dena instantaneo da, ezerk ez du irauten, gauzek ez dute astirik sedimentatzeko... Dena doa abiadan. Eta hori da, seguru asko, alderik handiena, gauzei jarraitzea oso zaila delako. Eta, gainera, guri ematen zaigun mezua, saltzen zaiguna, turistaren jarrera da. Joan batera, joan bestera, ikusi hau eta hori, baina arin. Gauzek ez daukate pisurik, alderantziz, dena da oso arina. Ez dago sakontasunik, edo egun fama onik ez duen termino bat erabiliz, ez dago hierarkiarik.

**Arteak behar du hierarkiarik?**

Bai, egun berdin-berdin balio du katu baten bideoak eta Munchen artelan batek. Zure timeline-an edo Facebookeko horman, elkarren ondoan edo elkarren segidan agertuko zaizkizu eta. Dena da gauza bera, eta ez hierarkizatzeak hori dakar: berez gauza gehiago esan beharko lizkizukeen hori berdintzea denbora-pasako gauzatxo batekin. Baina dena da lausoa, dena da askoz berdina egun. Oso gauza gutxik jarriko dute zalantzan nire erosotasuna, eta nire bizimodua.

**Saioa Olmoren atalean honakoa idatzi duzu: "Kontua da gaur egun ez dagoela lekurik, batek ez duela lekurik egiten, ez duela bere lekua aurkitzen". Hori espazioaz ari garela, eta denbora? Ba al da denborarik egun arteari duin erreparatzeko?**

Oso denbora murrizta da; denbora gutxi dugu. Eta artearen sistemak berak gizen du du joera hori: erromesaldia egin beharra artearen tenpluetara. Termino horiek erabiltzen baititu artearen sistemak. Baina, akaso, interesgarriagoa da tenplu batera joatea baino, ordenagailuan hamar minutuz irudi bati begira egotea, eta irudi hori nola eraikita dagoen, zer esateko erakita dagoen, eta nola funtzionatzen duen, eta ez egotea Louvren hiru segunduz Giocondaren aurrean, eta hari argazkia ateratzea. Artearen sistemak berak gizen du erromesaldiaren fenomeno, eta, igual lehenagokoa, edo lurreragokoa da inportanteagoa.

**Gizarte erabat prekarizatu honetan ez da gehitxo eskatzea kaletar arruntari bere denbora apur hori ere pasa dezan artea kontenplatu?**

Ez daukazu inor derrigortzerik, jakina. Baina exijitzen diogu herritar arruntari, batik bat gizonezkoari, oso gaztetatik hasi eta hil arte, dedikatzeke bere denboraren zati handi bat futbola ikustera, futbolari buruzko gauzak entzutera, futbolari lesioak ezagutzera... Nik ez dakit zer eskatu diezaiogekun kaletar norbanakoari, baina hor operazio oso bat dago, banalizatzearena. Lehen aipatu dugu hierarkizatzea. Hori oso ondo egiten dute albistegiak, horiek bai hierarkizatzen dute, lasai eta lotsagabe, eta ematen du berezkoa dela, gauzen ordena naturala. Eta hori da kontua: gauzen ordena naturalari buruz galderak egiteko balio baitu arteak. Benetan inportako balitzaigu gure gizartea nolakoa den, eta nolakoa izan behar duen, bada ematen zaiona baino dezentez inportantzia handiagoa eman beharko litzaiokeela arteari, eta sormenari oro har. Batez ere ikuspegi kritiko batetik jakitea irudiak nola sortzen diren, nola egiten diren, zer esan nahi duen marko batek, konposizio batek... Askotan oso gauza sinplea ematen dutenak.

**Zure aldetik badago ahalegin bat egungo artista horiek egin duten lana baloratzeke. Euskal Herriko azken urteetako historia irakurtzeko oso baliagarriak egin zaizkizula esan duzu.**

Artista hauek egin dute ahalegin bat aurkegu tradizioaren irakurketa bat egin, eten bat gauzatu, eta estetika berri bat sortzeko. Eta nik egin dut ahalegin bat artista hauen lanak ekartzeko beste te-



rreno batera, lurrera ekartzekoa, nire bizitzarekin eta nire inguruarekin lotzekoa, eta ez egiteko normalean artistek egiten diren irakurketa hanpatu horiek. Ohituta baikaude irakurtzen, katalogoetan-eta, ezer esaten ez duten testuak. Nire erronka bazen pixka bat bustitzea, eta nik nire irakurketa ematea. Askotan esaten da artea ez dela ulertzen. Baina, artearen ez-ulertze hori desakralizatu egin behar da.

### Baina testu ulergaitz horiek egon badau-de. Artearen sisteman nork du horren ardua?

Badago artista bat Allam McCollum izenekoa, estatubatuarra, eta behin hauxe irakurri nion: "Artearen sistema dago asmatuta, inor sartu ez dadin". Eta, nolabait, horretarako dira testu horiek. Guk markatzen dugu hemen zein den terrenoa, guk zedarritzen dugu sistema, eta hori onartzen duena sartuko da. Hau onartzen ez duena sistematik kanpo dago. Eta artista bera salduta dago. Lan bat egiten du eta badaki, lan hori zabaltzeko, sistema bera beharko duela.

### Azken urteetako Euskal Herriko historia ulertzeko, euskal gatazka deitu dena tar-teko, gehiago balio izan dizu arteak ezen eta ez kazetaritzak?

Bakoitzak ematen dizkit klabe diferenteak, eta maila diferentetako klabeak. Niretzat, adibidez, Txomin Badiolaren *Malas formas* erakusketa ikusi nuenean Irunberriko gertaeraren perspektiba aldatu zitzaidan [ETA eta Guardia Zibilaren arteko enfrentamendua, 1990eko ekainaren 25ean: guardia zibil bat hilik eta hurrengo goizean bi etakide hilda agertu ziren. Bertsio ofizialak beren buruaz beste egin zutela esan zuen, baina susmo nagusia zen Guardia Zibilak torturatu eta hil zituela]. Badiolak egurra jaso zuen Madrilen, "terrorista" izateagatik, eta Euskal Herrian ere egurra, "banalizatzaile" izateagatik. Garaitsu hartan erabaki zuen gatazkaren iruditeria erakusten hastea bere lanetan, eta ordura arte ikusten ez ziren elementuak txertatzen hasi zen. Eta horrek badu garrantzia nire ustez, baita artxibo modura ere.

### Non kokatzen da artea hedabideen eguneroko kontakizun eta interesen, eta denborarekin sortzen duten historia letra larrizkoaren errelato horren artean?

Artearen betebeharra da, eta aldi berean gaitasuna, ideien kondentsazioa. Badago hedabideen eguneroko marmarra, zurrumurru edo zarata hori, eta aldiz, artea nik justu kontrakoarekin lotzen dut, isiltasunarekin-edo, ez artelan guztiak isilak direlako, baizik eta gauza askoren konbinaketa puntu bakar batera ekarri behar dutelako: izan daiteke memoria, izan daiteke beste artista edo obra baten irakurketa, izan daiteke kezkatzen dituen gai bat, baina bide bakarrera ekarri behar dute, eta kondentsazio horrek, isiltasun bat dakar berekin... Gauza bera izan arren, beste era batera bizitzeko aukera.

### Prestigiotze baten beharrean dago artea?

Igual alderantziz; igual desprestigiatze baten beharra dauka arteak, eta desakralizatze batena, eta *des...* batena. Joera beti da artea zerbait sublimea eta gorena bezala azaltzekoa. Eta justu horixe da arazoa. ■

**KONTZERTUA** "GALERAK DISKAREN AURRERAPENA" azaroak 10, **LARUNBATA**, 22:00 Suteği **SARRERAK**

**ANTZERKIA** "Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi" azaroak 16, **OSTIRALA**, 19:30 Suteği **SARRERAK**

**BISITA GIDATUA** "HARRIA HITZ" azaroak 11, **IGANDEA**, 10:00 Frontoitik **DOAN**

**KANTU-BERTSO-BAZKARI-JIRA** "Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariekin", azaroak 17, **LARUNBATA**, 12:00 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA**

**PELIKULA** "BLACK IS BELTZA" FERMIN MUGURUZAREN aurkezpena, azaroak 11, **IGANDEA**, 19:00 Suteği **SARRERAK**

**PELIKULA** "OREINA" azaroak 17, **LARUNBATA**, 19:00 Suteği **SARRERAK**

**SOLASALDIA** "Antton eta Julen Telleria eta Aitziber Garmendia" azaroak 14, **ASTEAZKENA**, 19:30 Suteği **DOAN**

**KONTZERTUA** "EME TALDEA" azaroak 18, **IGANDEA**, 19:00 Suteği **SARRERAK**

**NOAUA/KO KULTURALDIA 2018** USURBIL AZAROA

\*SARRERAK: Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauako egoitzan. Noauako bazkideek prezio berezian Noauako egoitzan aldez aurretik. \*BAZKARI-TXARTELA: Patri jabetxean salgai

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Heriominak



Iratxe Retolaza


Hamarkada luze baten ondoren Sonia Gonzalez idazleak hitza hartu du, oraingoan saiakera-eran. Hala dio *Erreka haizea*-n: "Zergatik utzia nion idazteari galdetu ohi zidaten. Inork gutxi ulertu ahal zuen ezin niola literaturari barkatu errealitateaz sendatu ez izana". Hartara, fikziotik eta literatur adierazpideetatik urruntzeko asmoz, saiakeraren diskurtsora hurbildu da, baita lekukotza pertsonalera ere. *Erreka haizea*-n, beraz, pentsamenduak, lekukotzak eta ametsak bildu ditu Gonzalezek, testu laburretan gorpuztuak, errealitate-minak adierazteko. Diskurtsu-molde ezberdinak erabilia, maila berean kokatu ditu gogoetak, emozioak zein ametsak, errealitatea antzemateko eta ulertzeko hirurak gako direla iradokita.

Esan gabekoei edo esan ezin direnei aho-tsa jartzeko asmoa nabari da. Bere buruaz beste egiteko gogoia izan duela adierazten du idazleak, eta esperientzia horri tira eginda, Mendebaldeko tabuetariko batek zeharkatzen du liburua: suizidioa. Halaber, beste hainbat gai ere jorratzen dira, nola edo hala buruaz beste egiteko nahiarekin harremana badutenak: ezerezen gosea, galerak eta barne-minak, botere-harremanak, genero-zapalkuntzak, erruak eta damuak, sufrikarioaren kultura, eta abar. Kezka horiek guztiak ez ditu hari berean josi, gairik gai saltoka baitabil saiakeran zehar, baina elkarrizkiaz egiten diete testuek, eta batasuna nabari da mundu-ikuskeran, tonuan zein giroan.

**Erreka haizea.**  
**Botere, isilpen eta herioaz**

SONIA GONZALEZ

Susa, 2018.



Sonia Gonzalez Fernandez  
idazlea (Barakaldo, 1977).



Idea eta gogoeta batzuk errepikakorrak egiten dira liburuan zehar, baina, errepikapenak baliagarri dira testuen arteko loturak egiteko.

Literaturak ere presentzia handia du saiakera honetan. Besteak beste, bere buruaz beste egin duten idazleak dakartza gogora (Virginia Woolf, Alfonsina Storni, Anne Sexton, Sylvia Plath...), nolabait ispilu zaizkionak. Ildo horretatik, idazketaren zein suizidioaren arteko hartu-emanen gogoeta egiten du, baita literaturaren ahalmenen zein gabezien ere. Poemak ere biltzen ditu hausnarketetara, idatzitakoaren eta gertatutakoaren arteko arrakalak azalerazteko asmoz. Politiko-ki zuzenaren garaiotan, eskertzekoa da zaurietara, zulo ilunetara, zitalkerietara zein botere-nahikerietara zintzotasunez hurbiltzea. ■



» DISKOA

# Oroitzapen eta talde-lanaren emaitza



Iker Barandiaran  
@ikerBarandiara

Abenduaren 25ean jaio eta su hartuko du panpin diaboliko delako batek eta berarekin mundu guztiak. Hala omen dio galbidean dagoen kristau sekta erraldoiaren kondairak; eta hala izan behar badu, hobe sekta sunsitzaille horrek gu guztiok hondoratu aurretik amildegiaren ertzetik azkar igaro eta ahal den heinean sektakoei kontra egitea. Ideia horren bueltan ari zen jatorri katalana duen Alex Montiel (HHH taldeko kide ohia), 2000. urtearen inguruan Donostian, 25th Coming Fire musika taldea abiarazi zuenean.


Tantaka funtzionatzen du hardcore talde honek, agertu eta desagertu egiten da, baina pazientziari eutsi eta adi egonez gero, tarteka sorpresa atseginak eskaintzen ditu. Hain zuzen ere, kostatu zitzaien estreinatzea, baina behin pausoa emanda, diskografia mamitsua batu dute: 2008an *Reduced*; Zinc talde madrildarrarekin diskoa erdibana 2009an; *Bitterness* 2010ean; *No one is here to take your call... leave your message at the tone* 2014an; *Franco goes to Hollywood* EPa 2016an; eta aurten, esku artean dudana *Remains of the remains* lana, boskotearen historian ezinbesteko mugarrria bilakatu dena.

Donostiar horiek AEBetako hardcore eta punkaren ikur garrantzitsu izandako Poison Idea talde borobilaren abeslariarekin, Jerry A-rekin, kontaktua izan zuten eta

## Remains of the remains

JERRY A & 25TH  
COMING FIRE

Bonberenea Ekintzak  
American Leather Records



harremana estutu ahala elkarrekin diskoa egitea erabaki zuten. Esan eta egin, oroitzapenen oroitzapenetan oinarrituta baina gaur egun dagoenari zaplazteko ederra ematen diona. Disko luzea egin dute, Euskal Herrian Bonbereneak argitaratua eta AEBetan American Leather Records-ek.

Esan beharra dago 25th Coming Fire Euskal Herriko hardcore taldeen artetik altxor ezezagunenetakoa dela. Hasierako urteetan partaide aldaketa dezente izan zituzten baina behin egonkortuta emankor dabil taldea, nahiz eta oso zuzeneko gutxi egiten dituzten. Bada, Jerry A-rekin batera osatu duten proiektua borobil-borobila da. Taldea sasoi onenean dago, kantekek badute AEBetako iraganeko hardcore-punketik, New Yorkeko eskolatik, melodikoagoak diren patroietaatik, baina entsalada oso trinkoa da, askotan bortitza, eta Amaia gutxietsi gabe Jerry A-k pisu handiagoa ematen dio. Azaroan Euskal Herrian kontzertu gutxi batzuk eman go dituzte... eta zaila izango da errepikatzea! ■

25th Coming Fire banda donostiarra,  
Jerry A-ren eskutik.

# Ekosistema bizia



## BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Final laurdenetako azken saioa.  
Noiz: Azaroaren 4an.  
Non: Berriatuan.



**Dabi Piedra**

ARGAZKIA: BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

## FINALAURREKOETARA SAILKATUAK

*Final laurdenetako bost saioetako irabazleak:*

Imanol Uria  
Malen Amenabar  
Txaber Altube  
Aitor Bizkarra  
Oihana Bartra

*Puntuazioaren arabera pasako dira beste bost:*

Ander Elortegi  
Unai Mendiburu  
Eneko Abasolo *Abarkas*  
Arrate Illaro  
Julen Erezuma

*2016an finalista izan ziren zortzi bertsolariak:*

Xabat Galletebeitia, Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal, Beñat Ugartetxea, Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Jone Uriá, Ibon Ajuriagojeaskoa

Basoa bezala, bertsogintza ekosistema aberatsa dela azpimarratu du Bertsozale Elkarteak, aurtengo Bizkaiko txapelketako mezuan. Bertsolarien lanaren atzean, gai-jartzaileak, epaileak, antolatzaileak, babesleak, zaleak eta laguntzeko prest dauden boluntarioak ere ekosistema horren ezinbesteko partaide dira. Elkarlan horri esker, txapelketa biribilaz gozatzen ari dira bertsozaleak.

Bost final laurdenak jokatu, finalaurrekoen atarian da orain txapelketa. Hain zuzen ere, Berriatuko Mendibarren pilotalekuan jokatu azken final laurdenean jakin genituen finalaurrekoetan ariko diren guztien izenak. Horietako bat Oihana Bartra izango da, Berriatuan garaile izan baitzen. 2014ko finalean parte hartu eta gero, 2016koan huts egin zuen, eta indar betean ekin dio Miribillara itzultzeko bideari.

Hasieratik amaierara, oholtzako beste kideen gaitetik aritu zen Bartra. Ideiak aise josi zituen, huts nabarmenik gabe. Epaileek 469 puntu eman zizkieten; Josune Aramendi bigarrenak 446,5 batu zituen. Huts txiki batzuk gorabehera, dotore aritu zen markinarra, baina bertsoaldi batzuk biribiltzea falta izan zitzaion, atzetik geratu ziren gainerakoei bezala. Hirugarren, Ibai Amillategi izan zen, 446 punturekin. Kantaera sendoari esker, entzuleak bereganatu zituen hainbatetan.

Beste hirurak atzerago gelditu ziren: Itxaso Paia (411,5), Lander Ibarluzea Aitxulua (404,5) eta Asier Alcedo (399). Saioko une bitxia Aitxuluaren eskutik heldu zen, zortziko handiko ariketa zortziko txikiko doinuarekin hasi baitzuen. Alabaina, entzuleak berotzen ere asmatu zuen. Esate baterako, Alcedorekin batera, hamarreko txikian, aspaldiko musika taldea berpiztearen alde botata-


ko bertsoek txalo ugari eragin zituzten. “Berrero Rolling Stones, behar dau herriak/ goroldiorik ez dau dabilen herriak”, bukatu zuen lana Aitxuluak.

Kartzelakoan hau zuten gaia: “Luzaro egon zara mezua idazten. Okerreko pertsonari bialdu deusazu”. Gehienbat, bikote-harremanei heldu zieten bertsoari. Adibidez, ikuspegi horretatik Oihana Bartrak goitik behera josi zuen istorioa, eta azken puntuan errematea jo. Mezua okerreko pertsonari bidali arren, damu handirik ez zuen agertu seietako batek ere, Aitxuluak botatuko sententzia lekuko: “Makinak ere erra-tzen dira, eta pertsonak gehiago”.

Finalerdietako lehenengo hitzordua, hilaren 18an, Berriren. Bizkaiko bertsogintzaren ekosistema osasuntsu dagoela ikusi dugu orain arte, eta hurrengo saioetan ere, bizi-bizirik dagoela erakutsiko dute. ■

Egilea: Ana Zambrano

### Gurutzegrama



#### Ezker-eskuin:

1. Buruko ileen multzo. Orbana, narrioa. 2. Malda handiko aldapa. Asmoa. 3. Kolpeka. 4. Mainak edo txerak egin. 5. Antzetsu, gaitu. Masustondo, masusta-arbola. 6. Bizkaiko badia, Nerbioiren bokalean. Unagarria, nekutzen duena. 7. Garia eta gainerako laboreak eultzitzen diren leku lau. Zureak. 8. Zerbait ereiten duen pertsona. Gurdiek, higitzean, egiten duten hots ezatsegina.

#### Goitik Behera

1. Pixka, pitin bat. Bihi, garau. 2. Toka, du. Sakan, haran. 3. **Nafarroa Behereko udalerria (Argazkian)**. 4. Talaian egoten dena. 5. Du, berari. Galde partikula. 6. Ginebra. Nafarroako Ikastolen Elkartea. 7. Norbaiti egokitzen zaion parte. 8. Mineral koloredunak. 9. Kristo ondoren. Baratze landare. 10. Suitzako ibaia. Herdoil. 11. Uneko egunean. 12. Zehea. 13. Bagoiz osatutako garraio-bide. 14. Ihiak. 15. Galdezka.

### Sudokua

Erraza


|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 |   |   |   | 4 | 8 |   | 6 | 2 |
| 4 | 9 | 2 |   | 6 | 5 |   | 3 |   |
| 6 |   |   | 7 | 2 |   | 4 |   | 5 |
|   |   | 3 |   |   |   | 5 | 4 |   |
| 8 | 4 |   |   |   |   |   | 2 | 3 |
|   | 6 | 5 |   |   |   | 8 |   |   |
| 9 |   | 6 |   | 5 | 2 |   |   | 4 |
|   | 2 |   | 6 | 1 |   | 9 | 5 | 7 |
| 1 | 5 |   | 3 | 9 |   |   |   | 6 |

Zaila

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 9 |   |   |   |   | 2 |
| 5 |   |   | 2 |   |   | 7 | 8 |   |
|   | 3 |   |   | 4 |   | 6 |   |   |
|   | 8 | 4 |   | 1 |   |   |   |   |
|   | 6 | 5 |   |   |   | 8 | 4 |   |
|   |   |   |   | 9 |   | 3 | 6 |   |
|   |   | 1 |   | 3 |   |   | 7 |   |
|   | 2 | 3 |   |   | 9 |   |   | 6 |
| 7 |   |   |   |   | 5 |   |   |   |

### Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Letter tiles for the 'Esaera zaharra' puzzle:

T A   R B   S  
T   R   S  
E   E   Z   I N  
B A   S O   K  
E K   A E  
E G   O A A  
A   E R   O R

### Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

- Une
- Donari, sari
- Musika tresna
- Baso
- Tarro, altu
- Sama, lepoa
- Ulertu
- Otea hazten den toki
- Edo-ren indargarria
- Hazitarako txerri ar
- Bataiarri
- Oinaren azpia
- Gantzagi

LIPAR

KOIKE

### Ebazpenak

“Batak so, besteak arte.”  
ez goaz inora ere.”

#### ESABARRA ZAHARRA

- KOIKE
- ONPE
- PONTE
- APOTE
- EDOTA
- OTADI
- ADITU
- IDUNA
- HANDI
- OIHAN
- PIANO
- OPARI
- LIPAR
- ANAGRAMAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | 6 | 1 | 8 | 5 | 4 | 2 | 3 |
| 8 | 2 | 3 | 4 | 7 | 9 | 5 | 1 | 6 |
| 4 | 5 | 1 | 6 | 3 | 2 | 9 | 7 | 8 |
| 1 | 7 | 2 | 8 | 9 | 4 | 3 | 6 | 5 |
| 9 | 6 | 5 | 3 | 2 | 7 | 8 | 4 | 1 |
| 3 | 8 | 4 | 5 | 1 | 6 | 2 | 9 | 7 |
| 2 | 3 | 8 | 7 | 4 | 1 | 6 | 5 | 9 |
| 5 | 1 | 9 | 2 | 6 | 3 | 7 | 8 | 4 |
| 6 | 4 | 7 | 9 | 5 | 8 | 1 | 3 | 2 |

Zaila

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 5 | 4 | 3 | 9 | 7 | 2 | 8 | 6 |
| 3 | 2 | 8 | 6 | 1 | 4 | 9 | 5 | 7 |
| 9 | 7 | 6 | 8 | 5 | 2 | 3 | 1 | 4 |
| 2 | 6 | 5 | 4 | 3 | 9 | 8 | 7 | 1 |
| 8 | 4 | 9 | 5 | 7 | 1 | 6 | 2 | 3 |
| 7 | 1 | 3 | 2 | 8 | 6 | 5 | 4 | 9 |
| 6 | 8 | 1 | 7 | 2 | 3 | 4 | 9 | 5 |
| 4 | 9 | 2 | 1 | 6 | 5 | 7 | 3 | 8 |
| 5 | 3 | 7 | 9 | 4 | 8 | 1 | 6 | 2 |

Erraza

14. Ziak, 15. Eaka.

9. Ko, Urza, 10. Aar, Uger, 11. Gaur, 12. Arra, 13. Tren,  
4. Talairi, 5. Dio, Al, 6. Gim, NIE, 7. Tokamen, 8. Agatak,  
Nekagarria, 7. Larrain, Zeureak, 8. Erelle, Karrika.  
Ukalitka, 4. Mainatu, 5. Iajo, Marugatze, 6. Abra,  
Eske-eskuin: 1. Adats, Taka, 2. Pika, Gogoa, 3.

## Pere Ortega. Gerrak, armak eta gu.



### Gatazken ikertzaile

"Tarragonan (Herrialde Katalanak) jaio nintzen, 1944an eta Bartzelonako Delás Bake Ikerketen Zentroko lehendakaria naiz. Armagabetzea eta bakearen kultura dira nire eremuak, eta zehazki biolentzia eza. Gerraren ekonomia ikertzen dut bereziki. Gatazka armatuei buruz irakasten dut Kataluniako Unibertsitate Irekian (UOC)".

**Jamal Khaxoggiren auziak berriz eta gordin ekarri du lehen planora estatuen arteko arma trafikoaren gaia. Hainbat estatuk iragarri dute utziko diotela Saudi Arabiari armak saltzeari, baina ez Espainiak. Pedro Sánchekz ahoan bilorik gabe aitortu du bi herrialdeak lotzen dituzten interesak Khaxoggi auziaren gainetik daudela; hau da, itzulpena eginda, interesak armek eragin ditzaketan heriotzen gainetik direla.**

## "Herritar guztiok dugu erantzukizun maila bat ekialde erdiko gerretan"



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: DAVID SANCHEZ (EKINKLIK)

**Zabaldiko (Iruñea) hitzaldian esan duzu: "Hango gerrak hemen abiatzen dira".**

Atzo bertan Espainiako Kongresuak erabaki zuen jarraitzea armak saltzen Saudi Arabiari; beraz, salmenta horrek eragina izango du Ekialde Erdian eta bereziki Yemenen. Estatuko iritzi publikoa ez denez egoera horren aurka jartzen, herritar guztiok dugu erantzukizun maila bat hango gerretan, zeharka bada ere.

**Zenbat da munduaren gastu militarra urteko?**

Gobernuen datu ofizialen arabera, bilioi bat eta 750.000 milioi euro, hau da, munduaren BPGaren %2,3.

**Eta zenbat pertsona hiltzen dira urtean diru horrekin?**

Urtearen arabera, baina batez beste 50.000 bat pertsona. Gerra Hotza amaitu zenean, 1992an, 32 gatazka armatu ziren munduan, gaur egun 33. Ez dugu asko hobetu. Antzeko baliabideak bideratzen ditugu ekonomia militarra eta horra badoa ez doa gastu sozialera.

**Arma salmenta edo milaka lanposturen galera. Hori saltzen zaio herritarri.**

Hori gezurra da. Ikerketa on asko dago esaten duena industria militarrean dagoen lanpostu bakoitzeko hiru sor dai-tezkeela industria zibilean. Bestetik, ikuspegi etikoa dago, onartezina da herrialde batzuei armak saltzea, hauek beren herritarrak erreprimitzeko edo beste herrialde batzuetako herritarrak hiltzeko. Armak lanpostuen truke onartzen duten herritarrek, langileen nazioarteko elkartasun printzipioa galdu dute.

**Zein da enpresa militarren joera Espainian?**

Lehen gehiena Estatuarena zen, baina zati bat pribatizatu da. Saudi Arabiarentzat Cadizen korbeta itsasontziak egiten dituen, adibidez, Navantia da, Estatuarena. Francok 1948an sortu zuenetik, enpresa honek urtero diru asko galtzen du, 2016an 140 milioi euro adibidez; duela hamar urte 7.000 langile zituen, gaur egun 4.000. Estatuaren ontziola guztiak itxi ziren, militarrek salbu. Hamar urtetan Navantiak 700 milioi euro



galdu ditu, beraz, askoz eraginkorragoa litzateke diru hori industria zibilera bideratzea. Arma lasterketak ez du zentzurik, ez ekonomikoki ez etikoki.

### **Herritarrok badakigu zertarako diren arma horiek eta ez zaigu inporta?**

Hala da, bai. Orain adibidez, Saudi Arabiak Yemeni egiten dion blokeoagatik 7,4 milioi pertsona gosez edo gaixotasunez hiltzeko arriskuan dira, eta Espainiak salduko dizkion korbetek balioko dute itsas blokeo hori areagotzeko. Onartezina da, gobernuak ez du printzipiorik, etikarik, eta beraz, horrek egoismorik gordinena dakar.

### **Txina eta AEBetako ekonomia gatazka handi horrek ekar dezake gerra militarra?**

2020an, 2021ean edo oso laster Txina izango da munduko lehen potentzia ekonomikoa, AEBen aurretik. Liskarrek gora egingo dute, baina ez dut uste, batzuek dioten gisan, Hirugarren Mundu Gerra izango denik. AEBen "terrorismoaren aurkako gerra" aspaldi hasi zen eta gatazka itzelak ekarri ditu: Afganistan, Irak, Libia, Siria, Yemen... Eta han diren atentatu terroristen %1 hona iristen da. Ba-

*"7,4 milioi pertsona gosez edo gaixotasunez hiltzeko arriskuan dira Yemenen, eta Espainiak salduko dizkion korbetek balioko dute itsas blokeo hori areagotzeko".*

karrik sustraletara jota gelditu daitezke gerra hori, baina Mendebaldeak ez du nahi.

### **Donald Trumpek iragarri du bertan behera utziko dituela Sobiet Batasunarekin sinatu zuen irismen ertaineko eta luzeko misil nuklearren akordioa.**

[Mikhail] Gorbatxov eta [Ronald] Reaganen arteko akordioak zioen NATO ez zela ekialderantz zabalduko, baina Gerra Hotzaren amaieraz geroztik NATOk ez du besterik egin, Europako ekialdeko herrialde ia guztiak bereganatuz. Betetzen bada, armagintza lasterketa berri bati ekingo zaio, eta Errusia ez da atzean geratuko.

### **Dagoeneko ez al da hasi berrarmatze hori Txinan, Indian, Errusian...?**

Txinak asko indartu du bere armada, bereziki itsas armada, Afrika eta Hego Amerikatik datozkion lehengaiak babesteko, baina ez da erori AEBek jarri nahi dioten armagintza nuklearraren

garapenaren amarruan, edo espazioaren lasterketan... sekulako dirutzak xahutu beharko lituzke eta ez dago prest.

### **Hori gertatu zitzaien Sobiet Batasunari.**

Bai, eta horrela hondoratu zen. Orain Errusiak aliantza indartsua landu du Txinarekin, Indiarekin eta Iranekin, eta han "Mendebaldearen aurkako" blokeo bat eratu da. AEBek eta bere aliatuek ez dute samur izango munduko hegemonia militar eta ekonomikoari eustea. Beraz, uste dut, erregio mailako gerrekin jarraituko dugula, baina ez potentzien artean zuzenean, horrek gaur egun humanitatea desagerraraz dezake eta.

### **Kataluniara etorritik, uneren batean ikusi al duzu gatazka bortitzaren arriskurik.**

Ez. Urriaren 1eko erreferendumaren aurka Espainiako Gobernuak bideratutako errepresioa gogorra eta mingarria izan zen, baina horrez gain, ez dut ikusi biolentzia arriskurik. Zentzuzkoena litzateke aldean akordioa, Kataluniako herriak hautetsontzietan erabaki dezan nolako etorkizuna nahi duen. Aldebakarreko bideak orain arteko akatsen errepikapena ekarriko du. ■



## Hernanin Belen Estebanen panpin bat erreko dute San Juan suan, Altsasuk kendu dien protagonismoa berreskuratu nahian

Hernaniko Udalak kexa formala aurkeztu die Espainiako komunikabideei, azken urteetan Gipuzkoako herri horri buruz apenas hitz egiten dutelako eta aldiz, ia egunero Altsasuri buruzko albiste edo erreportajeren bat publikatzen dutelako. “Dena ez da Altsasu” izeneko idatziaren kopia bat eskuratu ahal izan du Beranduegik eta dokumentu horretan irakurtzen denez, hernaniar asko “minduta” daude egunkari eta telebista espainiarren abandonuarekin. “Hainbeste urtetan gure herrira etorri eta elkarrekin bizi izan ditugun momentu ederren ondoren, Altsasuko taberna batean gertatutako kontu batengatik gu horrela botata uztea ez zaigu zilegi iruditzen”, adierazi du Hernaniko Udalak. Arreta mediatikoa berreskuratzeko



Azeri dantzari elementu berriak gehitu dizkiote, gaiztoenen zerrendan berriz sartzeko lehian

ekimenak ere iragarri ditu Hernanik, besteak beste, San Juan suan Belen Estebanen itxurako panpin bat erretzea. “Espero dugu horrekin lortuko dugula berriz etortzea”, adierazi du Garin tabernako barran dagoen herritar batek.

### SAREAN ARRANTZATUA

Kantzelatu bankua honegaitik



Hello Putin!



## Jaurlaritzak galdetu du AHTren inauguraziorako Berri Txarrak libre ote dagoen

Eusko Jaurlaritza lanak aurreratzen ari da AHTren inauguraziorako. Ekitaldi handi bat antolatu nahi dute, koloretako globoekin eta kontzertuekin; eta EAeko Gobernuak iturriek Beranduegiri baieztatu diotenez, dagoeneko kontsultatu dute Berri Txarrak taldearen agenda inaugurazio egunean libre ote dagoen. Ekitaldiaren antolaketan lanean ari den Jaurlaritzako funtzionario batek azaldu duenez, hil ala bizikoa da kontzertu hori lotzea: “Trenaren kontra dauden erra-

dikal gehienak isiltzen dira Berri Txarrak tartean bada-go. Hain tontoak dira, pentsatzen dutela horrelako gauze-kin euskal kultura bultzatzen ari direla. Eta guk bitartean zuen dirua enpresa pribatuei oparitzen jarraituko dugu, mwahahahahahaha!”, esplikatu du Jaurlaritzako kideak, grabatzen ari ginela esan diogun arren.



Inaugurazio-ekitaldirako leloa eta kartela zabaldu ditu Jaurlaritzak

# LANDAREAK LANTZEN 2019

## LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI  
LOTUTAKO LANAK  
BARATZE,  
FRUITU BARATZE,  
LORE BARATZE  
ETA BASOAN

ILARGIAREN  
BI ZIKLOAK,  
ONGARRIKETA,  
LANDARE LAGUNTZAILEAK,  
TRATAMENDU NATURALAK,  
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta  
Antton Olariagaren ilustrazioak.**  
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak  
4€

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | © 943 371 545

   @bizibaratzea

 **ARGIA**  
argia.eus

**BIZI BARATZEA**  
bizibaratzea.eus

*\*Jakoba Errekondok  
sinatzeko aukera*



# eguna euskaraz! irakurtzen hasteko



itsasargiak  
kultura  
beranduegi / humorea  
bertso zaharrak  
kirol tribiala  
perretxikoak  
kultur tribiala  
estaturik gabeko herriak  
esaera zaharrak  
ondarea  
bizi baratzea  
ARGIA jendeak esana  
aldaketa klimatikoa  
euskararen erabilerarako erronkak  
Zeruko ARGIAren eta ARGIAren begietatik



 **ARGIA**  
argia.eus

**9€**

**Erosi ARGIAren Azokan**  
azoka.argia.eus  
azoka@argia.eus  
© 943 371 545